

Helduei euskara ikasteak ekarpen handia egiten diela nabarmendu du MANK-ek / 5

Industriak energia erronkari aurre egiteko dituen gakoak aztertu zituzten Altsasun / 7

Otsaportillo: memoria berreskuratzeko bide luzea, eta transmisioak ez dezala hutsik egin / 10

Etxeberri eta Ihabarri festen lekukoa Ziordiak eta Hiriberrik hartu diete. Altsasun atzera kontua / 11-13

Josu Igoak Zumaiako Dinastia Etxabe eta Donostiako Antiguako pilota torneoak irabazi ditu / 17

Aritz Oiarbide Erdoziak Euskadiko Aizkolari Gazteen Txapelketako finala jokatu du etzi / 18-19

Enara Urrak eta lagunek emanaldia eskaini zuten, eta taldearekin aurrera egiten dute / 21



Festak berdintasunean

Goxo txaranga neskez osatutako txaranga bakarra da / 2-3-23



Altsasuko festen hasiera. ARTXIBOA

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Hiru urte dira Altsasuko Udala aurrekontuak genero ikuspuntutik lantzen hasi zela. Horretan udaleko arlo guztiek parte hartzen dute. Ondorioz, udalak kudeatzen duen diruarekin zer egiten den aztertzen da: zeinek egiten duen, zertarako erabiltzen den, norendako den eta zeinek disfrutatzen duen diru horrekin. Udaleko Kultura Sailak adierazi izan du Iortia kultur guneko jarduerak genero ikuspegitik hausnartzea errazagoa zitzaiola festez eta ospakizunez baino.

Hori kontuan izanik, eta aukera sortu zenez, Berdintasun eta Kultura Sailek eskatuta, udalak erabaki zuen Altsasuko ospakizunen inguruan hausnartzeko parte hartze prozesua egitea. Horretarako eredu Tolosa izan zen. Han, aspaldi, halako prozesua egin zuten. Bi urteko hausnarketaren ondoren festen behatokia osatu zuten, eta indarrean da.

Sinboloez

Udaleko bi sailen ustez herriko ospakizunak ez dira berdinzaleak. "Festak esan eta buruan agertzen

Nola egin festa berdinzaleak?

Altsasuko Udaleko Berdintasun eta Kultura sailek sustatuta, festak berdinzaleagoak egiteko parte hartze prozesua egin zen joan den urteko udazkenean, pandemia betean. Helburua lortzeko prozesuak segida izan beharko luke

zaizkizun lehen irudiak zein dira? Festetan nor agertzen dira? Koadrilak. Zeinek osatzen dituzte?" galdetu du Idoia Goikoetxea Gomez berdintasun teknikariak. "Estereotipoak eta sinboloak dira. Festa eta gainontzeko ospakizunetan botere balio handiena dute sinboloek. Sinbolo horiek ez dira bakarrik gizartearen irudia edo isla. Sinbolo horiek osatzen dute gizartearen eta oso finkatuta daude".

Izan ere, balio sinbolikoa ere badute festek. Bere jarduerak

ideiekin, emozioekin eta sentimenduekin lotura zuzena dutelako. Ospatzen denak herritarrendako balio handia du. Hala ere, ordena sinboliko bat badago ospakizunetan eta emakumezkoak lan tradizionaleri lotuta ageri dira, nahiz eta gaur egun etxetik kanpo ere lan egin.

Gizartearen isla direnez, jendartearen egituren adierazle ere badira festak, eta eliteen eraginak erreproduzitzen ditu. Genero eta klase sistemak agerian gelditzen dira zenbait jardueraren bidez.

Ospakizun asko erritualak dira; dimentsio sinboliko handia dute eta gizartearen eragin handia dute. Erritualak orden sinbolikoa mantentzeko ihes lerroa ere badira, hau da, ospakizunaren bidez urtean behin halako araua hausteko aukera dago. Erritualak tradizioan oinarritzen dira, eta tradizioaren aldarrikapenaren atzean orden sinbolikoaren mantentzea dago. Sinboloak aldatzea "lehen eta zailena" dela nabarmendu du Goikoetxeak. Parte hartze prozesuan agerian geratu

zen jendeak sinboloena ikustea zailena zela.

Erritualek, bestalde, iragana eta oraina lotzen dituzte, baina egungo ezaugarriekin. Horregatik, ospakizunak bizirik daude eta eraldaketarako gaitasuna dute. Maila sozial eta sinbolikoa lotuta daude eta bata aldatzean besteari eragiten dio. Aldaketa proposamen batek gizarte errealitatearen zenbait aspektu kritiko ikusgarri egitean krisia sor daiteke. Baina krisia suntsitzaila edo sortzaila izan daiteke. Hala ere, aldaketa ospakizunetan eta erritualetan egitea zailagoa da beste espazioetan baino. Izan ere, ospakizunak gizarteko beste espazioetatik kanpo baleude bezala jokatzeko da.

Beste gako batzuk

Ospakizunak berdinzaleak ez direla ere adierazten du lanaren banaketak: "Nortzuk egiten dituzte lan batzuk? Nortzuk beste batzuk? Nortzuk daude antolakuntzan? Nortzuk lanean?". Emakumezkoek pairatzen dute espazio publiko eta pribatuaren arteko bereizketa. Eta lanaren banaketa tradizionala: haurren



EGOKI
Ventanas PVC Leihok
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



zaintza, garbiketa lanak... "Noiz sartzen dira emakumezkoak ospakizunetako erritual garrantzitsuetan? Nahikoa gizon ez dagoenean; bigarren mailako jarduera bat denean; mugimendu feministaren ondorioz, edo erakunde publikoen konpromisoen eraginez".

Bestetik, egiturazko indarkeria matxista dago, "emakumeak parte hartzea zailtzen duena". Eta ospakizunen elementu batzuk (kontsumoak, iluntasuna...) emakumezkoak zaurgarriagoak egiten ditu. Horregatik, "indarkeria matxistaren kontra denon inplikazioa lortzen ez badugu, ez dugu ezer eginen". Egiteko hori jarri du teknikariak.

Festak gizartearen isla dira. Baina ospakizunak ere herriaren identitatearen eta kohesiorako tresna eraginkorrak dira. Izan ere, herriaren adierazpen deigarri, koloretsu eta adierazgarri bat dira, harro egoteko arrazoiak ematen dutena. Gainera, herriaren berezitasunen edo onenaren erakusleho ere badira. Aldi berean, ospakizunak herritarren artean identitate barne dinamika sortzen du. Komunitatea eraikitzeke eta herritarren arteko kohesioa balio du, festa giroan hori errazten duten hainbat espazio sortzen direlako.

Teknikariak azaldu duenez, "askotan tradizio horretan oinarrituta ideia bat dugu: horrela egin izan da eta horrela egin behar dugu. Hausnarketa gehiago egin gabe. Eta hausnarketa hori egiteko premia dago". Herriko ospakizun guztien gainean hausnarketa behar dela uste du Goikoetxeak. "Santa Agedako aldaketa adibide handia da. Pila bat kostatu zen. 25 urte hasi zenetik 'bukatu' arte, oso epe luzea da zerbait onartzeko. Niretako denbora asko izan zen".

Parte hartze saioetan beste ospakizun batzuk agertu ziren, esaterako, inauteriak. "Nahiko eta oso azkar aldatzen ari dira. Sinbolikoki ere bai. Irudi batek hartu du errepresentazio botere handiena: momotxorroak. Beste irudi batzuk galtzen ari dira: maskaririk, sorginak... Beste egoera edo errepresentazio batzuk galtzen ari dira". Parte hartze prozesuan beste ospakizunetako uneak ere aztertu zituzten, esaterako, San Pedroko "tazika momentua". Goikoetxea "horrekin asko harritu" zen, "aztertzeke eta aldatzeke beste

une batzuk ateratzea gustatu zitzaidan".

Saioetan genero berdintasunaz aparte, askotan agertu zen beste ertz bat: etorkinak. Hainbat ospakizunetan duten edo ez duten parte hartzea agerian gelditu zen. "Traileko festak irekiagoak dira. Baina gainontzeko ospakizunak, gure tradizioak, ez dira hainbeste", azaldu du Goikoetxeak.

Prozesuaz

Parte hartze prozesuan aritzeko gonbidapena Altsasuko hainbat eragileri egin zieten. Ospakizunetako antolatzaileak mahaiaren bueltan nahi zituzten. Baina ez zen parte hartze handirik izan: "ez zen momentua, ez zegoen interesik, edo ez dakit". Ospakizun berdinzaleak lortzeko ezinbesteko jotzen dute parte hartze prozesua, "bestela ezin da horrelako helbururik lortu". Hori lortzeko "talde bakoitzak erabaki behar du parte hartzea. Prozesuan parte hartu eta, ondoren, aldatuko ditugu ospakizunak". Horretarako "kontzientzia behar da, hau da, parte hartu aurretik sentsibilizazio edo kontzientzia izan behar da hori guztia aldatzeko".

Gaineratu duenez, "berdintasunera jauzi egiteko parte hartzaileek kontuan izan beharko dute festak biziak direla eta aldatu egin daitezkeela". Teknikariak esan duenez, "orain ez da hainbeste aipatzen tradizioa. Baina askotan esan eta entzun dugu. Denok dakigu ospakizunak aldatzen ez badira, hiltzen direla, edo museoan bukatzen dutela. Aldaketak irizpide, hausnarketa eta helburu batekin izan behar du. Ezin da bat-bateko dinamika bat izan".

Beraz, Altsasuko festa egutegi guztia mahai gainean jarri eta ospakizun guztien gainean haus-

"OSPAKIZUNETAN BOTERE BALIO HANDIENA DUTE SINBOLOEK. OSO FINKATUTA DAUDE"

"ALTSASUKO GIZONEN BAT, EDO BESTE LEKUREN BATEKOA, IZUTUTA DAGO FESTAK AILEGATZEAN?"

Begiratu beharrekoak

Ospakizun berdinzaleak lortzeko, antolakuntzaz aparte, beste bost arlori erreparatu behar zaiola ondorioztatu zuten parte hartze prozesuan.

1. Jarduera eta ikuskizunak

Protagonismoak parekidea izan behar du. Eta emakumezkoak protagonismoa dutenean ezin dira objektu gisa eta sexualizatuta agertu. Tradizionalki gizonen egotzi zaizkien paper eta roletan ari diren emakumezkoak ikusarazi behar dira, maila berean jarri. Azkenik, festetako jarduera edo ekintzek bere eduki eta formatan balio feministak bultzatzen lagundu behar dute.

2. Hizkuntza eta iruditegia

Jarduerak lantzen dituzten edukiek (abestien letrak, irudiak...) mezu matxistik ez izatea. Ospakizunetan erabiltzen den iruditegia parekidea izatea eta posible bada genero rol eta estereotipoak hautsi edo eraldatzea (kartelak, programak...).

3. Indarkeria matxista

Orokorrean eta, bereziki ospakizunen testuinguruan, gerta daitezkeen indarkeria

egoerak identifikatu eta haiei aurre egiteko baldintzak jartzea. Eta indarkeriari aurre egiterakoan gizonen aliantza bilatzea.

4. Gizarte eraldaketa

Aldarrikatzaileak izatea eta hausnarketara bultzatzea, orain arteko ospakizunen hainbat aspektu zalantzan jarrita. Tradizioarekin hausteko ausardia izatea, hau da, gizonen protagonismoa, betiko orkestra... Bestetik, ospakizunak emakume indartsu eta ahaldunduak erakusteko espazio edo momentua izatea, herriko emakumeek bere tokia eta aitortzea eskuratzeko momentua, alegia. Horrekin batera, lan ikusezinen balioa aitortzea, lan horietako asko tradizionalki emakumei egokitutakoak izateagatik gutxietsiak izan direlako (festetako arropa txuria garbitzea...).

5. Izaera

Parte hartzaileak eta barneratzaileak izatea. Hau da, jarrera aktiboa bultzatzea herritar guztiek parte hartzeko aukera izan dezaten eta partaidetza sentimendua garatu dezaten.

nartu. "Nik parte hartzen dut ia-ia festa guztietan. Batzuetan parte hartu eta beste batzuetan ikusi. Gure sozializazioa, herriaren sozializazioa da, eta oso zaila da gure nortasuna aztertzea". Ospakizun berdinzaleak lortzeko asmoarekin segitzen dute. "Azken finean, ospakizun berdinzalea da denok leku guztietan eta pauso guztietan egotea, eta denon artean etorkizunaren proiektio bat egitea". Aurretik lana dagoela ondorioztatu dute, "herriko bizitzaren" halako aldatetak "dekretuz" ezin baitira egin.

Nondik jo?

Goikoetxeak argi azaldu du: "lehenik, ez dugu indarkeriari nahi. Esan didatenez, neska gazteak, 14 urtekoak, indarkeriarekin kezkatuta daude. 14 urteko neskek ezin dira izututa egon! Gizon guztiendako galdera: Altsasuko gizonen bat, edo beste lekuren batekoa, izututa dago festak ailegatzean? Gizonen eta mutilen joera eta jarrerarekin zerbait egin behar da".

Ospakizun berdinzaleagoak lortzeko teknikariak nahi luke antolakuntzan emakumezko gehiago izatea. Gainera, gizonen bileretan beharrean talde informalean hainbeste gauza ez erabakitzea nahiko luke. Horri lotuta, emakumezkoek erabakitzeko espazioetan parte hartzeko ahalegina eskatu die. "Horiek ez daude irekita. Gizonak konturatu behar dira gauzak non erabakitzen dituzten. Non erabakitzen da koadrilen funtzionamendua? Non erabakitzen da fanfarreak eta zer fanfarrea kontratatzea? Non erabakitzen da peñen jaitsiera egin eta nola egin? Non erabakitzen da herri bazkaria egitea? Hasteko hori aldatu nahi nuke. Horrek festetan isla izanen luke".

Izan ere, erabaki guneetan ordezkariak parekideak rola ekiditeko neurri zehatzak hartzea ekarriko luke. Baita antolakuntza espazioak irekiagoak eta horizontalagoak izatea eta boterea gizonengan ez kontzentratzea ere. Eta aukera emanen luke bestelako ahots eta ikuspegiak azalatzeko baldintzak jartzea. Esaterako, rol eta estereotipoen deseraikuntza eta partaideen arteko aniztasunari leku egitea, sexua, adina, jatorri, identitate, balore eta gustu desberdinetako jendea legokeelako.



Neska-mutilak festen hasiera ospatzen. ARTXIBOA



ASTEKOA

MIKEL MAZKIARAN

Madisongo zubiak

Duela gutxi irakurri dugu Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko Departamentuak zubi bat eraikiko duela Sakanako autobiarenean, Andia-Urbasako eta Aralarreko animaliak harrapatuak izan gabe ibil daitezten. Zubi edo korridore ekologiko hori Etxarri eta Bakaiku artean eraikiko da, eta 100 eta 200 metro bitarteko luzera eta 63 metroko zabalera izango ditu. Baina ez da beste zubiak bezalakoa izango, Singapurren jarritako zubi batean oinarritzen da. Zubi hau landare geruza bat da, bi mendiak konektatzen dituena. Nafarroako Gobernuaren datuen arabera, 1998tik 2019ra 147 animalia hil ziren Irurtzun-Altsasu tartean: 21 orkatz, 27 basurde, 22 azeri, 21 azkonar, baita igaraba bat ere.

Albisteak irakurtzen nuen egunkariko titularrak "salbazio-zubiei" buruz hitz egiten zuen. Izan ere, albiste honek gogoko dudana *Madisongo zubiak* filma ekarri dit gogora. Clint Eastwood-en film hau kasualitatez topo egiten duten bi pertsonaren maitasun eta funtsezko erabakien istorioa da.

ZUBI HAU LANDARE GERUZA BAT DA, BI MENDIAK KONEKTATZEN DITUENA

Beraz, zubi hau autobiarenean alde batean eta bestean bizi direnek elkar ezagutzeko aukera gisa ikusten dut. Aralarko azeri bat irudikatzen dut zubia zeharkatzen, bidean beste azeri batekin topo egiteko. Azeri horrek gaua

Berriaren azpian duen gordelekuan igarotzera gonbidatzen du. Gauza ondo badoa, baliteke bisita itzultzea eta zubia gurutzatzea, Lizarrustiko lagunarekin geratzeko. Eta oso ondo badoa, nongoak dira txakurkumeak? Gurasoak mendi desberdinetakoak dira, probintzia desberdinetakoak, autonomia erkidego desberdinetakoak. A zer nahaspila! Zubi gehiago behar ditugu.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitulu-luka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali behar bako dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Bete ezin baduzu... GERATU ETXEAN!

SAKANAKO BERDINTASUN ZERBITZUA

Uda amaitzear da, eta horrekin batera ikasturtearen hasiera eta errutinara buelta. Emakumeen kasuan oraindik, eta zoritxarrez, jornada anitzetara buelta (horietako baten batetik atsedean hartzea lortu badute, bederen) esan nahi du. Hala ere, udaren balorazioa egiterako garaian, ezin ahantz ditzakegu Sakanan zehar egondako jai eta ospakizunak.

Uda hasieran, pandemia ostean, jaien bueltaren zirrara zen nagusi. Gainera, hausnarketarako tartea izan denez, gauzak hobetzeko eta akatsetatik lezioa ikasita dagoela erakusteko garaia zen.

Baina matxismoaren pandemiak ez du etenik izan.

Sakanako jaietan oholta gainean gizonetakoak izan dira nagusi beste behin ere, eta emakumeek eraso matxistak jasan dituzte jaietan, eta jaietatik at. Ospakizun eremu horietan indar eta lanketa handia egiten da: prebentzioa, sentsibilizazio kanpainak, puntu moreak edo informatiboak... Baina hala eta gutziz ere, bada mezua ulertzen ez duenik.

Jaietako espazioak zein espazio publikoak gureak dira, eta emakumeendako zein genero eta identitate disidenteentzat gune ez seguruak izateak soilik zuena,

gizonak sorrarazten duzue; ze bai, indarkeria matxista gorpuzten eta erabiltzen duzuenak zuek zarete. Horrenbestez, ez erasotzearen ardura, zuena da.

Eta Iruñerriko mugimendu feministak bere Instagrameko kontuan ondo azaltzen zuen bezala, hau da bete beharreko protokolorik garrantzitsuenak:

Gaueko aisialdian eraso sexistak saihesteko protokoloa:

1. Ez bortxatu.
2. Ez egin erasorik.
3. Ez jazarri.
4. Ez beldurtu inor.
5. Ez drogatu inor.

Protokolo hau bete ezin duzula uste baduzu, GERATU ETXEAN!

Telegram kanal berria

Sakanako informazio guztia zure eskura

guaixe



guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Idoia Artieda Larraza
Pabxi Flores Lazkoz

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketazalea:

Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernu



Ahizpa txikiaren eskalada mugatuta dago

IRURTZUN

Foru administrazioko basozainak flora eta faunaren kontserbazioaz arduratzen dira. Eta mehatxatuta dauden espezieen kontserbaziorako hainbat neurri hartzen dituzte. Horien artean haitzetako kirol jarduerak mugatzea dago. Muga horiek behin betikoak izan daitezke, eremu horietan mehatxatuta dauden eta babestu beharreko landareri eta fauna daukelako.

Denboraldi baterako mugak ere badira. Eta horietako bat ezarri du Nafarroako Gobernuak Biahizpetako ahizpa txikiaren mendebaldeko aldean. Izan ere, inguruan bizi diren hegaztietako batzuk galtzeko arriskuan edo kaltebera gisa katalogatuta daude. Haien ziklo biologikoak aldi sentikorak ditu, esaerako, ugalketa eta habia aldia. Horiek errespetatzeko foru administrazioak erabaki du aldi batez paretan horretan kirol jarduera arautzea.

"Euskara ikastea ekarpen handia da"

IZASKUN ERRAZKIN BELTZA SAKANAKO MANKOMUNITATEKO EUSKARA TEKNIKARIA
Pantxika Lamur clownak bere nortasunarekin hainbat harreman egin zituen Altsasuko azokan herenegun. Aldamenean AEK-koak eta euskara teknikaria izan zituen

ALTSASU

Esku orrien banaketan eten bat egin eta Pantxika Lamurrek eragindako irria ezpainetan erantzun ditu galderak Errazkinek.

Zertan aritu zarete azokan?

Joan zen urtean egin genuen bezala, aurrean ere euskalduntze kanpainaren barnean, nahi izan dugu euskaltegia eta Mank-eko euskara zerbitzua kalera ateratzea. Informatzeko, euskara ikasteko zer aukera dauden, zer dirulaguntza dauden eta dagoen aukera aniztasun horren berri emateko.

Zergatik ikasi euskara?

Bertako hizkuntza delako. Eta hizkuntzaren normalizazio prozesu horren barnean gero eta euskaldun gehiago izatea garrantzitsua da. Gainera, ikasten duenaren euskara ekarpen pertsonal handia da. Asko ematen du maila pertsonalean eta asko daude aukera bezala. Ez da bakarrik lanerako aukerak, jendea azaltzeko aukerak, euskaldunengana beste modu batera hurbiltzea. Haurren %80 D erduan daukagu, euskaldunduko dira. Helduen artean euskalduntzeko koska bat dago oraindik ere, euskara ikasteko ahalegin hori garrantzitsua da.

Konbentzitu nauzu. Zer egin behar da euskara ikasteko?



Pantxikaren arabera adin guztiak dira egokiak euskara ikasteko. Izaskun, erdian.

"AEK-KOAK HERRIETARA JOATEKO PREST DAUDE. TALDEA SORTZEKO 7 LAGUN BEHAR DIRA"

Sakanan AEKren Itsasi euskaltegia dago. Altsasun dauka egoitza. Baina herrietan taldeak sortzen baldin badira, herrietara klase ematera joateko prest daude. Aurreko ikasturtean Irurtzun, Lakuntzan, Etxarri

Aranatzen, Altsasun eta Olatzagutian izan ziren taldeak. Aurten eskaeraren arabera ikusiko da non eskainiko diren euskara ikasteko klaseak.

Zer behar da herri batean AEKren talde bat sortzeko?

Gutxi gorabehera euskara maila berdina daukaten pertsonen taldetxo bat elkartzea litzateke kontua. Gutxienez 7 pertsona behar dira. Ez da behar herri handia izatea. Arruazun orain dela urte batzuk, esaterako, udalak pixka bat bultzatuta elkartu zen hasiera mailako talde bat eta

Arruazun, herri txiki batean, taldea sortu zen. Beraz, behar den hori: taldetxo bat, gutxi gorabehera maila antzekoa duena, talde berean joateko denak. Batzuetan guraso talde bat sortu da. Euskara ikasteko kezka hori daukanak, taldea osatzeko kale lan hori egiten badu, beste batzuk animatu, askotan horrela sortzen dira taldeak.

Euskara ikasi nahi dut, baina informazio gehiago nahi dut.

Bi aukera daude. Bertan ikasi nahi duenak AEK-ra jo dezake eta han esanen diote zer talde aurreikusten dituzten. Sortuta dauden talde horietaz aparte, beti daude prest herri berrietara joateko. emateko. Batzuetan ordutegiengatik, kanpoan lanean ikasten edo lanean ari direlako edo beste arazoengatik, nahi izaten dute beste euskaltegi batzuen informazioa. Kasu horretan Mank-eko Euskara Zerbitzura ere jo dezake, eta ematen diegu beste euskaltegi batzuei buruzko informazioa. Gainera, dirulaguntzen informazioa ere ematen diegu.

Zeren ikastaroetan izena emateak prezioa dauka.

Matrikula ordaindu egin behar da, baina gero dirulaguntza handiak daude. Euskarabideak, Nafarroako Gobernuak ematen dituen dirulaguntzak, Mank-ek ere ematen ditu. Eta akaso batzuetan udalek ere lagundu egiten dute. Azkenean matrikularen %80-edo bueltan jasotzen dute ikasleak. Ez da garesti ateratzen. Dirulaguntza jasota ikasleak 60 eta 80 euro arteko matrikulak ordaintzen ari dira. Ematen duen guztiarendako, oso merke da.

Zalantzak argitzeko telefonorik?

Euskara Zerbitzuarena 948 464 840 da. Eta AEK-rena 948 468 258.

EGUN ON SAKANA
egunero 10:00etatik aurrera
goizetako konpainiarik hoberena!

107.3 FM
eta GUAIXE.EUS

107.3 FM
beleixe



Gazteak bideoa grabatzen. WWW.ARNASAGARA.EUS

Gazteendako 'Arnasetik' sormen lehiaketa deitu dute

Udalerrri euskaldunetako 10 eta 16 urte bitarteko gazteek parte har dezakete. Lastailaren 5era arte irekia

ARBIZU / ETXARRI ARANATZ

Gazteek haien sormena erabiliz euskararekin lotutako istorioak kontatzea, hori da Arnasetik sormen lehiaketaren helburua. Udalerrri euskaldunetako, arnaguneetako, 10 eta 16 urte bitarteko gazteek parte har dezakete lehiaketan. Lanak, bakarka, lagunartean edo ikaskideekin batera egin ditzakete, bakoitzaren nahiaren arabera.

Sormen lehiaketan adinaren arabera sailkatutako hiru maila daude, eta bakoitzean aurkeztu beharreko lanak ezberdinak dira. Udalerrri euskaldun edo arnagune gehienak herri txikiak dira eta bertako ikasleek ingurueta-ko ikastetxe handiagoetara jo behar izaten dute DBH mailako ikasketak egitera. Egoera horretan daude LH 5. eta 6. mailako ikasleak. Horregatik, LHtik DBHra pasatzeak suposatzen dituen emozio, hizkuntza ohitura eta egoera berriak islatu behar dituzte haien sormen lanetan. Inspirazio bila dabilenarendako antolakuntzak laguntza eman dezakeen bideo bat sortu du. Horretarako edozein formatu erabil dezakete: marrazkia, bertsoa, poema, bideoa, abestia... Horiek pdf, MP3 edo MP4 formatuetan aurkez ditzakete.

Bestalde, DBH 1. eta 2. mailako ikasleek youtuber estiloan bideo-tutorial bat egin beharko dute. Horretan laguntzeko, Julen Portilloren bideo bat eredu gisa izanen dute. Azkenik, DBH 3 eta 4. mailako ikasleek Hiru Dama-txok ekoiztutako bideoan ager-

tzen diren galderei erantzuten dion bideoa sortu beharko dute, elkarrizketa irudikatuko duen formatu batean. Horretarako, parte hartu nahi dutenek, lehenik, bideoa deskargatu beharko dute. Ondoren, bideoan utzitako tarreetan erantzuna txertatu beharko dituzte. Bideoa editatu eta bukatutakoan, wetransfer edo halako Interneteko bidalketa tresnen bidez bidali beharko da arnasagara@gmail.com e-posta helbidera. Mezuan zehaztu beharko dira lanaren izenburua, taldeko parte hartzaileen izenak eta kontakturako telefono bat. Artxiboek 2GB baino gutxiagoko tamaina izan beharko dute. Bidalketa egin ondoren, antolakuntzaren webguneko formularioa bete beharko dute parte hartzaileek.

Sariak

Maila bakoitzean sari bat eta publikoaren saria banatuko dira. Bakoitza 500 euroko sari baliokide bat izan da. 500 euroko sari baliokide bakoitza Irrisarri Landen, Durangoko Azokako denda birtualean edo EITB-ko *Goazen!* eta *Irabazi arte!* telesailen merchandising-ean trukatu ahal izango da.

Arnasa Gara ekimena UEMAK, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak elkarrekin sustatutako egitasmoa da, eta euskararen arnaguneek duten garrantzia jendarteratzea du helburu, euskararen biziberritzea eta euskararen herriari egiten dioten ekarpena nabarmenduz.

Bestelako ikasturte hasiera Altsasu BHIn

Altsasu institutuko 600 ikasle eta 80 irakasle inguruk aurrenekoz bat egin zuten atzo. Eta "normaltasunera buelta" ospatzeko Euskalerrri Irratiaren zuzeneko saioa izan zuten guztiek. Institutuko komunitateko kideak pasa ziren mikrofonoen aurretik

ALTSASU

Estreinakoz Altsasu institutura joan ziren DBH1 eta Batxilergoko 1. mailako ikasleak asteazkenean egon ziren ikastetxean. Ikasle guztiak atzo elkartu ziren, horregatik, ikasturtearen hasiera ofiziala atzo egin zuten institutuan. "Baldintza desberdinetan bueltatu gara. Ekitaldi bat, zerbait egin nahi genuen, eta itzuler hori ospatu. Ikasleei merezi duten ongi etorria egin nahi genien", azaldu du Hiart Leitza Razkin irakasleak. Izan ere, ikastetxeek COVID-19 gaitzari aurre egiteko batera neurrik gabe hasi baitute ikasturtea. "Aurten musikorik gabe, patioan denak elkarrekin egonen dira... Beraz, normaltasunerako itzulera hori ospatzeko ere bada".

Eta ospakizuna egiteko "modu batean edo bestean gure gertuko komunitatea bildu nahi genuen: ikasleak, irakasleak, gurasoak, ikasle ohiak... Hori guztia irratia batean bil zitekeela iruditu zitzaigun eta Euskalerrri Irratia gonbidatu genuen goizeko magazina, Guardasola, hemendik emititzeko", azaldu du irakasleak. Irrati estudioa ekitaldi aretoko oholtzan prestatu zuten. Baina eguraldiak lagundu zuenez, kalera begira egin zuten. Hala ikasleak kalean dagoen belardi artifizialean eseri eta handik saioa zuzenean ikusteko aukera izan zuten. Hainbat mailatako ikasleak, txandaka, pasa ziren saioa entzuterara eta ikustera. 09:00etatik 11:00etara mikrofonoaren aurretik honakoak pasa ziren: Iñaki Mundiñano institutuko zuzendaria, David Oroz, Sakanako Mankomunitateko presidentea, Pello Reparaz ikasle ohi eta musikaria, Izaskun Andueza soziologo eta Nafarroako Unibertsitateko irakaslea institutuan migrazioa ikertu duena, Nerea Balda eta Peru Camara irakasle eta idazleak, Oihan Unamuno, Osane Orella eta Pello Mikelez



Ikasleek belarditik segitu zuten irratisaioa.

COVID-19 NEURRIRIK GABE, NORMALTASUNERAKO ITZULERA OSPATU ZUTEN

Batxilergoko 2. mailako ikasleak, Olatz Andueza eta Iñigo Aldunate irakasle eta musikariak eta, bukatzeko, Iñigo Goikoetxea, ikasle ohiak, guraso eta musikaria. "Kazetariak nola lan egiten duten ikustea polita da. Saioa entretenigarria, dibertigarria eta hezigarria" izan zela ziurtatu zuen Leitzak.

Aurreko egunetan institutuko sare sozialen bidez ikasturtea "airean, uhinetan" hasiko zutela zabaldu zuten. "Mezu horiekin ikasleak pixka bat 'moskeatuta' zeudela uste dut. Batzuek bazekiten, parte hartu behar zutelako. Baina ez dakit haien artean hitz egin duten eta jakin duten zer egin behar genuen zehazki", azaldu du irakasleak.

Ikastetxeaz

Altsasu institutuan ia 600 ikasle daude; gutxi gorabehera erdiak

Altsasukoak dira eta beste erdiak ibarreko gainontzeko herrieta-koak. Haiei klasea emateaz 80 irakasle inguru arduratzen dira. Institutuak DBHko lau mailak eta Batxilergoko biak eskaintzen ditu. Iruñean ikasten den Batxilergo artistikoa izan ezik, Batxilergoko adar guztiak ikas daitezke Altsasu institutuan.

Ikastetxerako hainbat egitasmo ere badituztela azaldu zuen Leitzak. Batetik, "pixkanaka instalazioak hobetzen joan gara azken urteetan. Orain ere gure helburuetako bat hori da. Ikus-entzunezkoek eskaintutako gela bat atontzen ari gara. Horrek baliabideak emanen dizkie ikasleei ikus-entzunezkoak lantzeko, ahoz-kotasuna lantzeko; jendaurrean aritzea lantzeko eta errazteko". Bestetik, aterpe bat ere jarri nahi dute, "euria egiten duenetan ikasleak hor egoteko", azaldu zuen irakasleak. Beste egitasmo batzuk ere badituztela gaineratu du. LOMLOE Legea aldatu egin da eta Leitzak argitu duenez, "gure helburuetako bat izanen da gure metodologiari eustea: proiektuen bitartez ikastea eta abar". Helburu horiekin abiatu dute ikasturtea institutuan.

Industria energia erronkari aurre egitera

Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako garapen arduradunek Altsasun bilera egin zuten. Ondoren, Irujo Etxea elkarteak eta Sabino Arana Fundazioak antolaturiko hitzaldia eskaini zuten, eta han zeuden Sakanako ekonomia arloko hainbat ordezkari

ALTSASU

Mikel Irujo Amezagak, Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Enpresa Garapenerako kontseilariak eta Arantxa Tapia Otaegik, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia-aren garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua, Altsasun bilera egin zuten joan den ostegunean. Hego Euskal Herriko bi administrazioetako kideen bilera "bi gobernuen arteko elkarlana sakontzeko" izan zela azaldu zuen Irujok. Foru kontseilariak azaldu zuenez, "momentu zail baten aurrean gaude. Izan behar ditugun eztabaidetan energiaren gaia mahai gainean egongo da, ezinbestekoa da, eta, horregatik, garatzen ari garen eta garatuko ditugun hainbat politika partekatu ditugu. Martxan ditugun proiektuak lagundu eta bulkatu dezakete sektoreko topaketek". Biek nabarmendu zuten bi erkidegoetan energia gehien kontsumitzen duena industria dela; Nafarroako kontsumoaren %38 da (garrarioa %37 eta merkataritza %4). Industrian energia eraldaketa egin behar dela azaldu zuten. Horregatik, Irujok esan zuen "energia eraldaketa egiteko neurri guztiak industria arlora bideratuta egon behar dute. Eta lagundu egin behar diogu". Kon-



Arantxa Tapia eta Mikel Irujo, behean eskuinean, ekitaldiaren aurkezpena entzuten.

tseilari nafarrak ziurtatu zuenez, "eraldaketa lasterketa bat da. Eta lasterketa lehenago bukatzen duena, hobe kokatua egonen da eta lehiakorra izanen da". Esan horiek berretsi zituen Tapiak.

Horregatik, Irujok Espainiako Gobernuari eskatu zion Next Generation funtseko dirua industriara zuzentzeko, batez ere, kontsumo handia dutenei, energia gastu eraginkorragoa eta berriztagarriagoa egin dezaten. Tapiak nabarmendu zuenez, "industriak ikaragarritzko gaitasuna du gure ekonomian au-

rrera egiteko, eta gure baliabideak aurrera eraman ahal izateko (Nafarroako Barne Produktu Gordinaren %31 da). Gobernuen aldetik laguntzak martxan jarri behar ditugu". Sailburuak ziurtatu zuenez, "energia trantsizio egiteko eta klima aldatetari aurre egiteko energia eraginkortasuna baliabide garrantzitsua da". Tapiak esan zuenez, "berriztagarriak martxan jarri behar ditugu. Baina deskarbonizazioa egiteko gas naturala trantsizio bezala erabiltzea pentsatzen zen, eta ordezkatu egin behar dugu

beste biogasa edo hidrogenoa erabiliz. Hau da, alternatibak bilatu behar ditugu. Zentzu horretan lanean ari gara". Sailburuak zehaztu zuenez, "Euskadin azken urtetan %50 gutxitu dugu energia kontsumoa, eta industriak egin du batez ere. Inbertsio asko egin dira, eta bide horretan jarraitu behar da". Gaineratu zuenez, "ez da nahikoa lantegien eta etxeen teiltuekin". Eta autokontsumorako plakez aparte haize erroten eta eguzki plaken parkeak eta bestelako azpiegitura handiak behar direla ziurtatu zuen.

Eraldaketarako ikuspegiak

Irujok esan zuenez, "Ministerioari eskatu diogu energia trantsizioa hiru ildo izan behar dituela: bat, berriztagarri gehiago behar ditugu; bi, autokontsumoa erabat zabaldu behar dugu eta, hiru, energia eraginkortasuna; energia aurreztu behar dugu. Eta bide horretan Ministerioari gizeate-arendako, merkataritzarendako eta, bereziki, industriarendako laguntza sakona eskatu diogu".

Sailburuak gaineratu zuenez, "Ministerioari hainbatetan esan diogu: ez dira isunak behar. Behar ditugu, beste mota batzuetako dirulaguntza programak eta baliabideak. Gure industriak, gure ekonomia ehunak osoak, biztanleriak orokorrean, baina baita administrazioak ere". Horrela hainbat neurri martxan jarri eta energia gutxiago erabiltzea lortuko litzatekeela ziurtatu zuen Tapiak.

Sailburuak esan zuenez, "ne-guari begira, badirudi gauzak zaildu egin daitezkeela. Gure ekonomia ehuna prest dago, baina gure laguntza behar du". Bi administrazioek Ministerioari kontingentzia plan bana aurkeztu diote ere.

Pentsio duinen aldarrikapena, atzera ere, kalean

Pentsio duinen aldeko mugimendutik nabarmendu zuten, "energiaren oligopolioak eta banku handien etekinek errekorrak hausten ari dira. Prezioak igoz aberasten dira; langileek eta pentsiodunek gure erosteko ahalmena galduz eta gure bizi eta lan baldintzak okertuz ordaintzen ditugu beraien onurak". Mugimenduak, atzera ere, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eta pentsioak urteko Kontsumo Prezioen Indizearen pare eguneratzea aldarrikatu zuen. Bi datu eman zituzten: pentsioen %51 ez da 1.000 eurora iristen eta emakumezkoek, bataz beste, gizonezkoen pentsioak baino %30 txikiagoa dute.

Isphording zaharra eraitsi eta zorupea deskontaminatzen

Altsasuko Geltoki kalearen 24. zenbakian Isphording enpresa zena dago. Nafarroako Gobernuaren Nasuvinsa enpresa publikoak haren eraikin zaharrak bota, obra hondakinak atera eta lursaila garbi utzi nahi du. Lan horiek despeditu ondoren zoru azpitik kutsadura kentzeko lanei ekinen litzazieke. Egiteko horiek hamar hilabeteko epean egitea aurreikusi du Nasuvinsak, aurreten hasi eta heldu den urterako lanak bukatuta egoteko. Eraistea eta kutsadura kentzeko hiru hilabete beharko lirateke eta gainontzeko zazpi hilabeteak kontrolerako epea litzateke. Obrak 529.970,99 euroko aurrekontua du (BEZ barne).

Olaztiarra lan istripuan hil da porlandegian

Heriotza eragin duen lan istripua izan zen Olatzagutiko porlandegian atzo eguerdian. Pabilioi batean zamalanetan ari zen orga jasotzaile batek gizonezko langile bat harrapatu zuen. Lankideek 112ra hots egin zuten, baina medikua iritsi zenerako gizona hilda zegoen eta ezin izan dute ezer egin. Foruzaingoak ikerketu zuten ezbeharra.

Dorraoko San Joan Txikiko kofradeen topaketa egin zen

San Joan Txiki kofradiako 17 kideak mezan elkartu ziren larunbatean. Ondoren Juan Francisco Lizarraga Pueyo priorearen etxera joan eta hildako anaien eta etxekoaren aldeko erresponstua errezatu zuten. Elkartean priore berria izendatu zuten: Jose Ignacio Insausti Jauregi. Segituan, gosaldia, kontuak argitu eta bazkaldu egin zuten.



Kofrade batzuk elkartean. UTZITAKOA

BIKAIN GARAJEA

Mekanika
Elektromekanika
Serie 100
pintura prototipoa
Autokarabana eta
furgoneta saila

948 460 037 Arbizu

FLORES S.L.

Utzubar industrialdea Arbizu
948 460 499
Nafarroako berezko txistorra.

*Denon artean
hobe!*

*Proiektuan
parte hartu
nahi duzu?*

www.guaixe.eu/harpidetza

Berrikuntzak munduko arrozak ekimenean

Aurrenekoa tokia da: Zumalakarregi plazan egingen da, festetako igandean, irailaren 18an, 10:00etatik aurrera. Bigarrena, hondakinak ez sortzeko, dastaketarako platera euro batean erosi beharko dela. Azkena, udalak altsasuar berriei harrera egingen die

ALTSASU

Seigarren aldia izanen da Altsasun munduko arrozak ekimena egiten dena. Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak, Sakana Harrera Haranak eta Burunda mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatu dute, Altsasuko Udalaren laguntzaz. Begoña Zestau Baraibar kulturartekotasun teknikariak azaldu duenez, "honekin bilatzen duguna da sukaldaritzaren bidez Altsasun dagoen herritarren aniztasuna plazaratzea. Arroza da jaki unibertsal bat, mundu osoan joaten dena, baina ohitura, jatorria, tokien arabera prestaketa anitza da". Sinbologia horri segituz, "Altsasu izango litzateke lapiko handi bat, non biztanle anitzak, bere osagai bereziekin, sartzen da lapiko horretan eta sortzen da elikagai goxo-goxoa. Zapore ona utziko du".

Aurtengo edizioak "berrikuntza dezente" ditu: "bat leku aldaketa da. Aurtun Zumalakarregi plazan izanen da. Bestea da aurtun plater bakoitzeko euro bat kobratuko dela. Horrekin bilatzen duguna da arrozen dastaketa garaian pertsona bakoitzak plater bakarria erabiltzea hainbat arrozen dastaketa egiteko".



Antolatzaileak eta parte hartzaile batzuk elkarrekin Zumalakarregi plazan.

Sekula baino sukaldari gehiago izanen dira Zumalakarregi plazan. Beraz, handik pasatzen direnek, hainbat jatorritako altsasuarrak eta sakandarrak ezagutu eta beraien gastronomiaren bereizgarriak ikasteko aukera izanen dute. Arroza prestatuko dute Nigeria, Senegal, Maroko, Bielorrusia, Ukraina, Kolonbia, Venezuela, Nikaragua eta Bulgariako jatorria duten sakandarrek. Eta haiekin batera Sakanan Harrera Harana plataformak eta Altsasuko pentsiodunen taldeak izanen dira. Pres-

tatutako arrozak 14:00ak aldera emanen dira dastatzeko.

Harrera ekitaldia

Estreinakoz Altsasuko Udalak eta Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak altsasuar berriei ongi etorri ofiziala egingen diete. Irailaren 18an, domekarekin, 12:30ean, Zumalakarregi plazan egingen da ekitaldia. Harrera horretan erraldioen konpartsak parte hartuko du. 2020tik etorri eta herrian bizi diren altsasuarrak izan dira gonbidatuak harriera horretara.



Gaur, 20:00etan, plazan, ziztaden kontrako kontzentrazioa deitu du Itaiak.

Itaiak festetarako etxeratze kolektiboak antolatu ditu

Ostiral eta larunbatean izanen dira: 01:00etan, 03:00etan eta 05:00etan, karpako atetik abiatuta

ALTSASU

Itaiako kideen iritziz, "egungo festa ereduak eraso matxistak gauzatzeko baldintzak jartzen ditu. Horregatik, ezinbestekoa ikusi dugu emakume langileen babeserako tresnak indartzea". Hori dela eta, Itaiakoek indarkeria matxistari aurre egiteko "mekanismo propio eta independenteak garatzeko beharra" ikusi dute. Horregatik, festetako bi egunetan etxeratze kolektiboak egingen dituzte, "emakumezkoak etxera seguru eta lagunduta bueltatzeko". Azaldu dutenez, "tresna horren helburua da Sakanako emakumezko langileen segurtasuna bermatzea. Gure artean babesa antolatzeaz aparte, independentzia politikoz antolatze gaitasuna handitzea ere bada xedea". Horregatik, Itaiako kideek "indarkeria matxistari aurre egiteko etxeratze kolektiboetan parte hartzera deitu dute".

Sakanako indarkeria matxistaren errealitatea ezagutu eta analisi osatuagoa egiteko, Itaiak inkesta zabaldu zuen garagarrean. Inkesta erantzun zuten gehienak emakumezko gazteak izan ziren. Ondorioetako bat izan zen inkesta erantzun zuten emakumezkoen %63k etxerako bidean beldurra pasa zuela. Horregatik, Itaiak etxeratze kolektiboak antolatu ditu Altsasuko festetan. Horretaz aparte, inkestak beste emaitza batzuk eman zituela jakinarazi dute Itaiakoek: inkesta erantzun zuten emakumezkoen %76k noizbait sufritu du indarkeria matxista bere bizitzako testuingururen batean (hezkuntza, lana, sare sozialak, lagun artean, bikotekidea edo jai giroa); %73ren ustez festa giroak eraso izatea errazten du eta %77k festa giroan eraso matxistaren bat sufritu du noizbait. Itaiako kideen iritziz datuak "larriak" dira.

0 km
SAKANAKO
GIDA

260
KLIK BAKARREAN

Ez ahazteko, memoriaren bidea egiteko

Otsaportilloko ekitaldian 200 bat pertsona elkartu ziren igandean. Ez ahazteagatik familiei eskerrak eman eta memoria tokien garrantzia azpimarratu zuten. Hainbat udal hautetsi eta Nafarroako Parlamentuko presidentea izan ziren besteak beste

SAKANA

Ibarreko udalek 1936ko estatu kolpearen ondorioz errepresioa pairatu zutenak oroitzeko eta omentzeko ekitaldia antolatzen dute urtero. Aurten Arbizuko Udala arduratzen antolakuntzaz Fco. Javier Razkin Flores alkateak eta Aizaga Zeberio Petriati zinegotziak aitortu egin zituzten historia mugimenduaren bihotz eta arima diren errepresaliatuen senideak. Nabarmendu zuten, "gizarte presioak eta herritarrek mugiarazi dituzte instituzioak historia memoria arloko legeak onar ditzaten. Horri esker legez-tatu eta garatu dira hilobiak aurkitzeko lanak, azterketak, indusketak..." Horregatik, ekitaldia baliatu zuten errepresaliatutakoekin familiei eskerrak emateko, "ahazteari uko ez egiteagatik, bazekitelako ahaztea esperantza galtzea zela, noizbait egia jakiteko eta beraien gertukoendako justizia eta erreparazioa lortzeko esperantza galtzea".



Ekitaldia bertan izan zirenen lore eskaintzarekin despeditu zen.

Izan ere, "urte luzeetan hildakoak eta haien familiak oroimen ofizialetik ezabatu dituzte, kontakizun bakarra ezartzeko asmoz". Aitortu zuten, "biktimen memoria isilarazia berreskuratzeko bide luzea dago egiteko

oraindik; batez ere etorkizunari begira, transmisioak huts egin ez dezan. Bide horretan, ezinbestekoak dira Otsaportillo bezalako memoria tokiak". Ekitaldiak "sendotzen du Otsaportilloren 'memoria toki' izaera".

Memoriala

Nafarroako Memoria Institutuko Historia Memoriako zuzendari Josemi Gaston Aguasek azaldu zuenez, Nafarroako atxiloketa guneen memorialaren sorrera sustatzen ari dira. "Haien memoria jasoko da, baita ondoren etorri zen errepresioarena ere". Memorialean "agerian jarriko da faxisten basakeria, Nafarroa gatibuen lurralde bihurtu zela. Eta han 1936ko estatu kolpearen ondoren eraildako pertsona guztiak oroitzeko aukera izanen da. Hausnarketa, memoriala erreferentzia eta bilgunea izatea nahi dugu, datozen belaunaldiek basakeria faxistaren, askatasuna eta identitatea defendatu behar diren inguruan hausnartu ahal izateko", azaldu zuen Gastonek.

Iruñean kokatuko da memoriala, han 17 atxiloketa gune izan zirelako 1936 eta 1945 artean. "Errepublikaren balioak defendatzeagatik haietatik ia 20.000 pertsona pasa ziren. Asko etxera bueltatu ahal izan ziren, baina, asko, isilpean atera eta fusilatzea eraman zituzten, Iruñerrian eta Nafarroan barna (Valcaldera, Loiti, Ibero, Erreniega, Telleria, Etxauri...)" argitu zuen. Memoriala Iruñeko Aralar eta Arrieta kaleen bideturtean egonen dela jakinarazi zuen Gastonek, "zezen plazatik gertu, Ezkabako gotorlekuaren, Salestarren eta Eskolapioen eskolen parean, txakurtegiaren ondoan. Toki hori aukeratu dugu sei bat atxiloketa gune daudelako".



Ontzian lurra sartzen.

Memorialeko herrialdeko hobi eta memoria toki enblematikoetako lurra egotea nahi dute, "horrela, hartu zituen lurraekin, erail zituztelako bueltatzerik izan ez zuten pertsonen itzulera sinbolizatu nahi dugu". Horregatik, Gastonek igandean ontzi ireki bat utzi zuen eta makina bat izan ziren lur apur bat ontzian sartu zutenak. Otsaportilloko lurra Sakanako beste hobiak ordezkatzeko ditu memorialeko.

DUELA 25 URTE...



Altsasuri buruzko liburua

Altsasuko Udalak eta Eusko Ikaskuntzak bi urte lehenago sinatutako hitzarmenaren ondorioz, herriak historian zehar izandako bilakaera aztertzeke beka eman zuen. Jose Maria Jimeno Jurio historialariak koordinatu zuen Amilibia eta Arbizuren ikerketa. Haren fruitua izan zen Altsasu, *Gure herriaren kronika historikoa* liburua, udaletxean aurkeztu zutena. Ele bitan idatzita, herriko liburu dendetan salgai zegoen.

Ospa mugimenduak ez du poliziarik nahi

Manifestazioan "kolore guztietako indarrek poliziaren normalizazioan emandako pausoak" salatu zituzten

ALTSASU

Ospa!-ko kideek esan zuten, "poliziarik gabeko gizarte batean sinisten" dutela. Horregatik, "edozein polizia indarren kontra beti ozen agertuko" direla esan zuten; "ez dugu poliziarik nahi plazetan, kaleetan, jai guneetan". Hori lortzeko "borrokan, antolakuntzan, eztabaidatzen errepresioa salatzen eta hari aurre egiten" segitzeko deia egin zuen.

Haien iritziz, "ezagutu dugun krisi handienaren ateetan burgesia bere matoi uniformatuek gizartearen betetzen duten papera



Larunbateko manifestazioa.

justifikatzen eta defendatzen ari da, dituen indar eta baliabide guztiekin". Izan ere, "burgesiak badaki polizia indarrek heldu diren urteetan berebiziko pape-ra jokatuko dutela". Esan zuten, "polizien normalizazio kanpainan burgesiak erabili duen tresna eraginkorrena alderdi politikoak dira. Bereziki, gobernuan dauden edo hura sustengatzen duten indar sozialdemokratik". Ildo berean, "poliziaren arazoa kapitalaren dinamikatik aldenitu eta eredu kontu bat dela" diotenak ere badaudela esan zuten. "Arriskutsuak dira hainbat politikariek Ertzaintzaren alde botatuko hitzak, Mutrikuo EH Bilduk Jai Batzordean parte hartu nahi zuten zipaioari emandako babesa, edo Ernaik Berriozarren Foruzaingoa defendatzen eta babesten aritzea".

FESTAK

HIRIBERRI FESTAK

IRAILAK 9 Ostirala

12:30 Trikipoteoa.
14:00 Herri argazkia.
15:00 Herri bazkaria.
16:00 Kantuz Patrice Dumorarekin.
17:00 Tribiala, mus eta partxis txapelketak.
17:30 Haur jolasak eta kilikiak.
20:00 Otamena.
20:30 Musika Gabezin taldearekin.
22:00 Zezensuzkoa.
00:30 Musika Gabezin taldearekin.
02:30 Aulkien jolasa.
04:30 Gaupasa, Txiteran.

IRAILAK 10 Larunbata

12:00 Puzgarriak.
12:30 Bermuta Jarauta 69 txarangarekin.
14:30 Kuadrilla arteko bazkaria.
16:30 Puzgarriak eta mozorroak.
17:00 Erronda ginkana eta DJ ArdiBeltza.
20:00 Otamena.
20:30 Musika Biziarun Erromeria taldearekin.
22:00 Zezensuzkoa.
00:30 Musika Biziarun Erromeria taldearekin.
02:30 Mozorro festa.
04:30 Gaupasa, Txiteran.

IRAILAK 11 Igandea

13:00 Jesus Mariatxia, Txiteraren atzealdean.
17:30 Txokolatea, kilikiak eta musika, plazan.

18:30 Bingoa.
20:00 Otamena.
21:00 Zezensuzkoa.

ZIORDIA FESTAK

IRAILAK 9 Ostirala

HAURREN EGUNA
12:00-14:00 Haurrendako jolas parkea.
14:30 Haurren bazkaria, elkartean.
16:00-19:00 Haurrendako jolas parkea.
18:30-19:30 *Magiklow* haurrendako ikuskizuna.
20:00 Bonba japoniarrak. Gazta, ardoa eta kakahuete banaketa.
20:30-21:30 Dantzarima dantza konpainiaren *Akelarrearen sua berpizten* ikuskizuna, Txoperan.
22:00 Zezensuzkoa.
00:00 Kontzertuak: The Lio eta Nafarroa 1512 taldeak.

IRAILAK 10 Larunbata

11:00 Futbol partidak: Ziordia - Sutegi - Uhartte Arakil.
13:00-14:00 Sakanako Trikitilariak.
17:00 Txirindularitza proba.
Burunda txirindularitza klubak antolatuta.
20:00 Bonba japoniarrak. Gazta, ardoa eta kakahuete banaketa. Euskaraldiaren aldeko photocalla.
20:00-22:00 Ostikada elektrotxaranga.
22:00 Zezensuzkoa.
00:00-03:00 Eztitan taldearekin



IHABAR Asteleheneko arroz janak 160 pertsona elkartu zituen.

dantzaldia.
03:00-05:00 DJ Txumarirekin dantzaldia.

IRAILAK 11 Igandea

12:00 Dantzari txikien euskal dantzen emanaldia.
17:00 Kiki pailazoaren *Bizi bizi* zirkua ikuskizuna.
18:30-19:30 Ziordiko Zortzikoa, Haize Berriak bandarekin.
20:00 Bonba japoniarrak. Gazta, ardoa eta kakahuete banaketa.
20:00-23:00 Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.
21:15 Zezensuzkoa.
21:30 Herri afaria.
23:00 Gaixoa ni.



ARTXIBOA

ZIORDIA 2021ean jaiotako ziordiarrek, eta Ziordiko nagusienek, 95 urteko Baltasar Otxoak eta Luisa Landak, festen hasierako zapia jaso zuten.

JARAIN!
Eraso sexistarik gabeko ZIORDIA libre!



Mank
BERRIA



ALTSASU Ongi etorri momotxorro eta sorgina!

Irailaren 11n, igandean, 17:00etan, bi erraldoi berrien aurkezpen ekitaldia egingen dute, Zumalakarregi plazan. Ondoren, kalejira egingen dute herritik. 2019an mustu zituzten kinto mutila eta kinto neska erraldoiak, eta ordutik Altsasuko bi festa garrantzitsuenetariko pertsonaiak dira erraldoia Santa Agedako kinto bikotea eta inauterietako momotxorroa eta sorgina. Orain, momotxorro eta sorgina erraldoien irudi berria mustuko dute.

ARTXIBOA

ALTSASU EXTREMADURA EGUNA

IRAILAK 10 Larunbata
09:30 Gosaria: Extremadurako

ogi mamiak, La Encina kultur elkartearen.
11:30 San Juan ermitara erromeria. Guadalupe ama birjinaren omenezko meza.

Ondoren, Brotes de Encina taldearen emanaldia eta auzatea, ermitako plazatxoan (euriarekin La Encina elkartearen).
14:30 Herri bazkaria, La Encina elkartearen.
Ondoren, Brotes de Encina taldearen emanaldia, La Encina elkartearen.

sari banaketa, udaletxean.
12:00 Festen eztanda handia. Altsasuko txistulariekin, gaita jotzaileekin eta erraldoiekin.
Ondoren, peña eta erraldoien kalejira Altsasuko eta Etxarriko gaita jotzaileak lagunduta, udaletxearen aurrean.
12:30 Kalejira eta zortzikoa, Altsasuko txistulariekin.
13:00 Nafarroako jotzen emanaldia: Corrientes Navarras taldea, Foru plazan. Sakana Kantuz '22 Altsasu, udaletxearen aurrean.
13:00 Elkartasun brindisa. Jai batzordeak antolatuta.
15:00 Presoen eta iheslarien aldeko bazkaria, Zubeztia plazako karpan.
Jai batzordeak antolatuta.
16:00 Peñen kafea eta kalejira. Altsasuko Peñak antolatuta.
17:30 Olinpiadak txarangarekin.

Jai batzordeak antolatuta.
18:00 Esku pilota partida profesionalak. Baiko kirolak antolatuta, Burunda frontoian.
19:30 Buruhandiak, Foru plazan.
19:30-21:30 Dantzaldia London Orkestrarekin, Foru plazan.
20:00 Peñen jaitsiera, Zumalakarregi plazatik.
Altsasuko Peñak antolatuta.
21:15 Peñen iristea Foru plazara.
21:30 Altsasuko zortzikoa eta Larrain dantza, Altsasuko Txistulariekin eta Etxarriko gaita jotzaileekin, Foru plazan.
22:00 Zezensuzkoa, Foru plazan.
23:00 Kontzertuak: Haizkan eta Reimy, Zubeztia plazako karpan.
Jai batzordeak antolatuta.
23:30-02:00 Dantzaldia London Orkestrarekin, Foru plazan.

BiL TOKi
TABERNA • JATETKA

Ongi pasa festetan!

Festetako menu berezia eta egunero bokatak barran

Telefono berria:
948 562 348 • Altsasu

Kaixo
Kafetegia • Jateketa

Ongi pasa festetan!

Pintxoak, bazkariak, afariak eta ogiartekoak

García Ximenez 20-22
948 469 124 Altsasu
www.restauranteikaixo.com

ALTSASU FESTAK

IRAILAK 14, asteazkena
10:30 2021eko kintari harrera. Zapien janzea eta kintaren lehen argazkia, udaletxe aurrean. Udalbaltzaren irteera udaletxetik Otadiako San Kristo ermitara, Altsasuko Txistulariekin.
11:00 Hamaiketakoa, gaztetxean. Altsasuko Peñak antolatuta.
11:30 Festen kartel lehiaketako

R. RAMOS INDUSTRIAL

Ongi pasa festetan
ZURE ENPRESAK FUNTZIONA DEZAN BEHAR DUZUN GUZTIA

Electricidad Ramos y cia.-S.L. | Ondarria industrialdea z/g · Altsasu · 948 564 825

www.electricidadramos.com | www.ramos.es

IRAILAK 15, osteguna**JAI BATZORDEAREN ALTSASUKO PEÑEN EGUNA**

09:30 Dianak, Altsasuko gaiteroekin.

10:00-13:00 XCIII Altsasu Txirrindularitza lasterketa.

Altsasuko Kirol Elkarteak antolatuta.

11:30 Auzatea, Beti Jaten elkarteak eskainia, Foru plazan.

11:30-14:30 Txiki park eta Txu txu tren, Zumalakarregi plazan.

13:00 Egurdiko kontzertua: Iñaki Uranga *En buena hora*, Foru plazan.

14:30 Lagun Onak elkartearen 50. urteurrena ospatzeko bazkaria. Ondoren, kalejira txarangarekin.

14:30 Makarronada, karpan. Jai batzordeak antolatuta.

Ondoren, Erronka.

Peñak eta Kima euskara taldeak antolatuta.

16:00-19:00 Txiki park eta Txu txu tren, Zumalakarregi plazan.

16:00-17:00 Peñen kafea, Foru plazan.

Altsasuko Peñak antolatuta.

17:00-20:00 Elkartepoteo eta merienda.

Altsasuko Peñak antolatuta.

19:30 Buruhandiak, Foru plazan.

19:30-21:30 Dantzaldia Laiotz taldearekin, Foru plazan.

20:00 Peñen jaitsiera, Zumalakarregi plazatik.

21:15 Peñen iristea Foru plazara.

21:30 Altsasuko zortzikoa eta Larrain dantza, Altsasuko Txistulariekin eta Etxarriko gaita jotzaileekin, Foru plazan.

22:00 Zezensuzkoa, Foru plazan.

22:00 Kontzertuak: Harresi eta Ahuntzak taldeak, gaztetxean.

Jai batzordeak antolatuta.

23:00-01:00 Bon Joviren tributo kontzertua Runaway taldearekin, Foru plazan.

00:00-02:00 Elektrokela



ALTSASU Elektrokela elektrotzaranga Altsasuko kaleetatik ibiliko da ostegun gauean.

Elektrotzaranga, gaztetxetik. Altsasuko Peñak antolatuta.

IRAILAK 16 Ostirala**JAI BATZORDEAREN KUADRILLEN EGUNA**

09:30 Dianak Altsasuko Musika eta Dantza eskolako txistu ikasleekin.

11:30 Auzatea, Zubeztia elkarteak eskainia, Foru plazan.

12:00 Herriko nagusiei omenaldia.

Abardia jarriko zaie etxean, Udala Musika Eskolak girotua.

12:00 Herri kirolak eta munduko jolasak, lortia zabalgunean.

Jai batzordeak antolatuta.

13:00 Egurdiko kontzertua: Goxua'n Salsa, Foru plazan.

14:30 Nagusien omenezko bazkaria. Ondoren, Dantzaldia Trio Digital taldearekin, 20:00ak arte, lortia kultur gunean.

15:00 Elkartasun bazkaria, Zubeztia plazako karpan.

Jai batzordeak antolatuta.

16:00-20:00 Peñen kafea, merienda eta kalejira.

Altsasuko Peñak antolatuta.

17:00 Txan Magoa, Baratzeko Bidea plazan.

17:30 Jokoak txarangarekin.

Jai batzordeak antolatuta.

18:00 Apar festa, Baratzeko Bidea plazan. Erremonte jaialdia, Burunda frontoian.

Euskal Jai Berri Erremonte Fundazioak antolatuta.

19:30 Buruhandiak, Foru plazan.

19:30 *Preso, iheslari eta deportatuak etxera* manifestazioa, Foru plazan.

Sarek antolatuta.

19:30-22:00 Dantzaldia Gauargi taldearekin, Foru plazan.

20:00 Peñen jaitsiera, Zumalakarregi plazatik.

21:15 Peñen iristea Foru plazara.

22:00 Zezensuzkoa, Foru plazan.

22:00-23:30 Kalejira Goxo txarangarekin.

Udaleko Gazteria Zerbitzuak antolatuta.

22:30-23:30 Los del Rayo taldearen kontzertua, Foru plazan.

23:00 Kontzertuak: Burutik, Nikotina eta Tirri&Tery, Zubeztia plazako karpan.

Jai batzordeak antolatuta.

23:30 Tropa do Carallo taldearen kontzertua, Foru plazan.

ALTSASU Euskararekin eta euskaraz dibertitzeko Erronka

Festa giroan, altsasuarren artean euskara modu ludikoan erabiltzeko espazioa sortzeko eta Euskaldiko etorrera prestatzeko helburuarekin Altsasuko Peñak eta Kima euskara taldeak Erronka antolatu dute. Irailaren 15ean, osteguna, izanen da, Altsasuko festen baitan; makarroi jatearen ondorengo kalejiran.

Erronka taldekako lehiaketa izanen da. Peñen poteoko geldialdi bakoitzein probak edo erronka txikiak garatuko dira. Geldialdi bakoitzean bi proba izanen dira: bat, sare sozialen bidez egin beharrekoa, eta, bestea, han bertan egin beharrekoa. Proba guztiek puntuak, hizkiak, emanen dizkiete lehen hiru taldeei. Bukaeran, jasotako hizkiekin ezkutuko esaldia asmatzen duenak saria eskuratuko du.

Parte hartu nahi duten altsasuarrek lau eta sei kide arteko taldeak sortu behar dituzte. Haietako bat taldeko ordezkaria izanen da, eta bere telefono zenbakia eman beharko dio antolakuntzari izena ematera; Whatsapp erabili beharko dute erantzunak emateko. Erronkan parte hartu nahi duten taldeek izena eman behar dute 650 43 97 11 telefono zenbakira Whatsapp mezua bidalita; altsasuneuskaraz@gmail.com posta elektronikoa helbiderra mezua bidalita; peñen kafetarako izen emate garaian Gure Etxea eraikinetik pasatzean edo festetako makarroi jatearen ondoren. Izena ematean talde bakoitzak taldekide kopurua jakinarazi beharko du eta bere burua identifikatzeko izen bat eman beharko du, euskaraz. Antolakuntzak izena emateak aurretik egitea estimatuko du.

Gainera, irailaren 17an, larunbatean, herri bazkariaren aurretik Euskaraldiaren photocall-egonen da.



Jai zorientsuak opa dizkizuegu

Jai hauetan indarberritu zaitez

Amaya

OKINDEGIA



678 323 403
• Iruña Hiribidea, 48 •

948 468 026
• Zumalakarregi Plaza, 3 •

670 389 017
• San Juan Kalea, 50 •

948 562 185
• Otadiko Kristo Deuna, 19 •

ALTSASU

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 9

ALTSASU Tailerra.

Euskahalduntzeko eta Euskaraldiaren etorrera prestatzeko tailerra.
11:00etatik 13:00etara, Gure Etxea eraikinean.

SATRUSTEGI Antzerkia.

Ion Barbarin eta Txori Garcia aktoreen *Kinki Games* antzeztelanaren emanaldia.
19:00etan, frontoian.

ITURMENDI Hitzaldia.

Santiago apostoluaren hilobia.
Hizlaria: Alfonso Garciandia Goñi.
Sakanako Garapen Agentziak antolatuta.
19:30ean, udaletxean.

ALTSASU Kultur 2022.

Jarabe de Pau taldearen kontzertua.
20:00etan, Foru plazan.

ALTSASU Elkarretaratzea.

Zitadarik ez! Erasoan aurrean babesa antolatu Itaia Sakanaren elkarretaratzea.
20:00etan, udaletxearen aurrean.

ETXARRI ARANATZ Kultur 2022.

Kuttuna taldearen kontzertua.
20:30ean, Foru plazan.

LARUNBATA 10

IRURTZUN Mendi irteera.

Anayet tontorrera sei bat orduko ibilbidea edo Anayeteko ibarrera lau bat orduko ibilaldia. Pikuxarre kontzertua.
07:30ean, autobus geltokitik.

UHARTE ARAKIL Oinezko martxa.

Sakanako Donejakue bidea ezagutzeko ibilaldia. Sakanako Garapen Agentziak antolatuta. Bakaikuko Santiago ermitaraino. Bidean argazki rallya egingen dute.
08:30ean, Zamartze santutegitik.

ALTSASU Saskibaloitxapelketa.

Streetball Altsasu 22.
10:00etatik aurrera,
Intxostiapuntako saskibaloitxapelketa.

ALTSASU II. Sukarrafest musika jaialdia.

Mariur, Cavan, Legaliza Murder, Mendikoa eta Ealain taldeen kontzertuak.
18:00etatik aurrera, Foru plazan.

ALTSASU Otadiko Kristo Deuna pilota txapelketaren bigarren finalerdia.

Pilota eskolak (Benjaminak): Carabias – San Roma (Pilotajauku) / Argüelles – Araña (Sutegi); Mistoa: Ibarrola (F) – Mitxelena (M) / Carabias (M) – Oskoz (F); Elitea: Senar – Lizeaga (Gipuzkoa) / De la Fuente – Azpiroz (Nafarroa).
22:00etan, Burunda frontoian.

IGANDEA 11

ALTSASU Mendi irteera.

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak Lizarragatik Bakedanoko haginara ibilaldia egingen du.
08:00etan, egoitzan.

IRURTZUN Bisita gidatua.

Saien balkoia, harkaitzegiko biztanleak Bi ahizpen mendi magala zeharkatzen duen ibilbide zirkularretik. Sakanako Garapen Agentziak antolatuta.
09:45ean, autokarabanen gunean.

IRURTZUN Pilota partida.

Plazaz-plaza pilota txapelketa: Etxegarai - Ruiz de Larramendi / Zabaleta - Orbegozo. Ados pilotak antolatuta.
12:00etan, frontoian.

ALTSASU Antzerkia.

Fake, trampantojo antzeztelanaren emanaldia.
20:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal preso eta iheslariak etxera elkarretaratzea.

20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 12

ALTSASU Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.

12:00etan, Zumalakarregi plazan.




ALTSASU Altsasuko Festetako kartel lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa.


Irailaren 1etik 11ra. lortia kultur gunean erakusketa gelan.

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 9




Larunbata, 10



Igandea, 11



Astelehena, 12



ESKELA

Alejandro Pain Palomo

Zein zaila den zu bezalako pertsona handi bati agur esatea beti ezeren truke guztia eman diguzunean. Zure hutsunea nola beteko dugun ez dakigu, baina jakin ezazu zauden tokian zaudela izan genezakeen erreferentziarik onena izan zarela eta zuk esaten zenuen bezala, bihar ez da sekula.

Maite zaitugu Alejandro

Familia joio



ESKELA

Jairo Azpilikueta Martinez

Zure barre handia
gure alaitasunaren argia

95.eko kinta
Altsasu




ESKELA

Alejandro Pain Palomo

Beti egongo zara gure bihotzetan

Zubeztia Elkarteko juntako kideak
Altsasu



ESKELA

Jairo Azpilikueta Martinez

Ez agurrik ez adiorik, gero arte baizik
Ez zaitugu ahaztuko

Ferialeko lagunak



ESKELA

Jairo Azpilikueta Martinez

Gure oroimenean zure irribarreak
Gure bihotzetan zure indarra
Gure bidean gero arte bat
Ez zaitugu ahaztuko, Jai

**Ama, aita, Erku eta Piti, Gorka,
Eva eta Kaxero eta Ane**



BEILATOKIAK

ALTSASU **ETXARRI ARANATZ**
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 - www.izarratanatorio.com



IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
 🐦 @Grupolrache
 📘 Grupolrache
 🌐 www.tanatoriosirache.es

ESKELA



Catalina Quintana Ondarra
(1934/8/9 - 2022/5/12)

Betirako Bakaikun
Betirako gurekin

Bakaikuko familia
Arbizu - Bakaiku

ESKELA



Julian Flores Flores
—Goian bego—
2022ko abuztuaren 16an hil zen, 81 urte zituela

Eskerrik asko gure bizitzetan jarri duzun
maitasunagatik
Gure bihotzetan beti

Zure familiye

OROIGARRIA



Guadalupe Gares Artola
III. urteurrena

Utzi pentsatzen
berriz elkartuko gara,
iraganeko egunak itzuli ahal direla

Etxekoak

ESKELA

Ana Mari Goikoetxea Etxauri

Esku batean iguzkia ta,
beste eskuan euria,
hark guretako gorderik dauka,
egoki zaigun guztia.



Erkudengo Ama Abesbatzak bihotzez

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 €
prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

JAIOTZAK

- **Matias Esquivel Abadia**, abuztuaren 5ean Lakuntzan
- **Maui Saez de Bikuña Lopez**, abuztuaren 26an Arbizun
- **Aimar Burillo Serna**, abuztuaren 30ean Lakuntzan
- **Hafsa El Ogdhi Mahdi**, irailaren 3an Altsasun
- **Izai Maia Checa**, irailaren 3an Altsasun

EZKONTZAK

- **Adrian Gomez Gomez eta Leticia Flores Irurzun**, abuztuaren 6an Lakuntzan
- **Andoni Blas Arzelus eta Idoia Miguel Martiarena**, abuztuaren 27an Lakuntzan
- **Ainhoa Garcia Beldarrain eta Iñigo de Loiola Eguren Jimenez**, irailaren 2an Lakuntzan

HERIOTZAK

- **Julian Flores Flores**, abuztuaren 16an Lakuntzan

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN
DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

ALOKATU

Bikote bat bi txakurrekin bizitzeko etxe baten bila: Sakanan (Arbizu inguruan bada hobe) alokatzeko pisu edo etxe baten bila gabiltza, gehienez 400 euro ordaindu ditzakegu orain, denborarekin erosteko aukera nahiko gure. Deitu 699 173 735 / 696 629 605 telefonoetara, milesker.

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINITZA

Irurtzungo Pikuxar tabernak asteburuetakoko bi langile behar ditu: Sukaldari laguntzailea asteburuetakoko (esperientzia eta euskara baloratuko dira) eta asteburuetakoko zerbitzaria (euskara ezinbestekoa, esperientzia baloratuko da). Interesatuak bidali Cva.pikutaberna@gmail.com helbide elektronikora.

IKASTAROAK

Lakuntzan Oinarrizko Saitasun digitalak doako ikastaroak: irailaren 19tik 30era izango dira, **Kultur Etxean:** enplegu eskatzaileei zuzenduta-

koa goizeko 9:15tik 13:15ra. Publiko guztientzat ikastaro bat 15:00etatik 17:00etara eta bestea 17:00etatik 19:00etara. Informazioa eta izen-ematea 948 576 015 - 948 012 012 fonoetan edota info@lakuntza.eus - SNEcompetencias-digitales@nasertic.es helbide elektronikoa.

Etxarri Aranazko Udal Ikastaroetan izena emateko epea zabalik: Irailaren 13ra arte, 948 460 004 fonoa deituz edo erregistroa@etxarriaranatz.eus emailera idatziz. Inprimakiak eta araudia udal bulegoan eta www.etxarriaranatz.eus webduen eskuragai. Jardueren hasiera urriaren 10eko astean izango da: Yoga (asteartetan eta ostegunetan 09:15-10:45 eta 11:00-12:30, kultur etxean), Soinketa lasaia (asteleheneretan eta asteazkenetan 16:16-55, ikastolako soinketa gelan), tonifikazioa (asteleheneretan eta asteazkenetan 17:00-17:55 edo 19:00-19:55, ikastolako soinketa gelan), Pilates (asteleheneretan eta asteazkenetan 18:00-18:55, ikastolako soinketa gelan), Pintura (asteartetan

15:15-17:15 Kultur etxean), Estimulazio kognitiboa (asteartetan eta ostegunetan 11:30-13:00 Kultur etxean), Berrera-biltzearen artea jostintza (arituak asteazkenetan 16:30-18:30 eta hasiberriak ostegunetan 16:30-18:30 Kultur etxean), Hiketari ikasteko ikastaroa (larunbatetan 10:00-12:00 Kultur etxean), Zirkotailerra haurrentzako (asteleheneretan 17:00etan edo 18:00etan eskolako psikomotritate gelan), Mintzakide taldea (eguna eta ordua taldean erabakiko da).

Arakilgo ikastaro eskaintza: Yoga Ihabarren, asteleheneretan eta ostegunetan, bi txandatan: 17:00 - 18:30 / 18:30 - 20:00 (urriaren 4tik hasita urtarrilaren 30era arte), mantentzen duen soinketa (egunak eta orduetgia taldean zehazteko), Eskulana (asteleheneretan 10:30 - 12:30), sasoitsu bizi +60 (asteazkenetan 10:30-12:00), mugikorra eta ordenagailua +60 (ostegunetan 11:00-12:30), oinarriko kompetentzia digitalak (asteleheneretan ostiralerara 16:00-20:30), sukaldaritza ibiltaria (ostiraletan

bailarako elkartean). Izen emateko epea zabalik 634 584 226 - 948 500 101 fonoetara deituz, arakilkultura@gmail.com - info@arakil.net postetara idatziz, irailaren 29ra arte.

OHARRAK

Arakilen ikasturte eskola garraioan izen ematea: 2022-2023 ikasturtean derrigorrezko hezkuntza ondoren ikasten jarraitzen dutenek, zerbitzu hau erabiltzeko interesa izanez gero, irailaren 10a baino lehen izena eman beharko dute Arakilgo Udaletxean inprimakia betez.

Irurtzunen 0-3 haur eskoletarako dirulaguntza deialdia: irailaren 30 bitartean, haurrak Haur Eskoletara eramateagatik bateragarritasuna sustatzeko dirulaguntzak eskatzeko epea irekita egongo da.

Altsasun, jenderik gabeko etxebizitzaren gaineko 2022ko zerga: borondatez ordaintzeko epea irailaren 24an bukatuko da helbideratu gabeko ordainagiriak La Caixako edozein banku

bulegotan ordain daitezke ordainagiri aurkeztuta. **Etxarri Aranazko 2022ko 1. Seihiabeteko uraren erreziboak:** Helbideraketa berriak edo aldatuak eskatzeko azkeneko eguna irailaren 21a izango da. Ordaintzeko borondatezko epea irailaren 28an bukatuko da.

Olaztiko Gaztekoan izen emateko epea zabalik: Zerbitzua 12-16 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, Olaztin erroldatutakoek lehentasuna izango dute. Urriaren 14tik maiatzaren 20ra zabalik egongo da: ostiraletan 18:30-21:00, larunbatetan 17:00-21:30 eta igandetan 17:00-21:00. Irailaren 23ra arte udal bulegoetan, fitxa osatuz edo kultura@olazti.com helbidera idatziz eta diziplina neurrien araudia onartzearen dokumentua sinatu behar da. Eskabideak baieztatu ondoren eta Gazteko zerbitzua hasi aurretik ordainduko dira tasak.

Olaztiko ludotekan izen emateko epea zabalik: irailaren 23ra arte udal bulegoan, izena emateko fitxa osatuz edo kultura@olazti.com helbidera fitxa

bidaliz. Bi talde egingo dira 1. taldea 2015etik 2018ra jaiotako haurren dako (asteazkenetan 15:00-16:00 psikomotritate dantzari aplikatuta), eta 2. taldea 2014an eta aurreko urteetan jaiotakoendako (asteleheneretan 16:30-18:00 eta asteazkenetan 16:00-17:00 dantza modernoa- ren hastapenak, ostegunetan 16:30-18:00), urriaren 10ean irekiko ditu ateak.

Nekazaritzako ibilgai-luen inspektzio teknikoak irailaren egingo dira: Lizarragan 12an 10:00etatik 14:30ra, Unanun 13an 10:00etatik 14:30ra, Etxarri Aranazko 14an eta 15ean 10:00etatik 14:30ra, Iturmendin 16an eta 19an 10:00etatik 14:30ra, Altsasun 20ean eta 21ean 10:00etatik 14:30ra, Olaztin 22an 10:00etatik 14:30ra eta Ziordian 23an 10:00etatik 14:30ra.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburak.eus



Altsasu, Preferente mailako igoera ospatzen. UTZITAKOA

Denboraldi berriko futbol ikuskizuna hastera doa

FUTBOLA Etxarrik, Lagun Arteak eta Altsasuk asteburuan ekingo diote Preferente mailako 2022/2023 denboraldiari

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Asteburu honetan hasiko dute denboraldia Nafarroako Futbol Federazioak antolatutako txapelketetan lehiatuko diren talde askok. Preferente mailako 2022/2023 denboraldia asteburuan hasiko da martxan, eta baita jubenil mailako Liga Nazionalako liga. Erregional mailako denboraldiari irailaren hirugarren asteburuan ekingo zaio, irailaren 17an eta 18an, eta astebete beranduago, irailaren 24an eta 25ean Emakumezkoen Preferente maila hasiko da.

Hiru talde sakandarrak batera

Talde sakandarrak abuztuan hasi ziren entrenatzen. Aurre denboraldiko lagunarteko partidak ere jokatu izan dituzte, eta denboraldi berriari ekiteko prest eta gogotsu daude. Aspaldiko partez, Sakanako hiru futbol taldeek bat egingo dute txapelketa berberean, Preferente mailan hain zuzen ere. Joan zen denboraldian Etxarri Aranatzek Preferentean jokatu zuen eta mailari eustea lortu zuen, Lehen Maila Autonomikoan zebilen Lakuntzako Lagun Arteak mailaz jaitsi zen, eta Erregional mailan zebilen Altsasuk mailaz igotzea lortu zuen, 30 urteren ondoren Preferentera bueltatu. Talde sakandarren arteko aspaldiko derbiak itzuli dira, futbolzale sakandarren gozamenerako.

Zelai Berri, Dantzaleku eta Ardiskil Preferentean bi multzo daude eta talde sakandarrek lehen mul-

tzoan jokatuko dute, beste hamabost talderekin batera: Beti Casedano, Itaroa Huarte B, Ilunberri, Egües B, Arrotxapea, Doneztebe, Universidad de Navarra, Beriain, Aurrera, Soto-Ibarbaso, Burladés, Amigó, Lezkairu, Aibarés eta Salesianos. Talde sakandarrek larunbatean ekingo diote denboraldiari. Lagun Arteak Iruñeko Amigo taldea hartuko du, Zelai Berrin, 17:00etan. Altsasuk maila berria Dantzalekun mustuko du, 17:30ean, Aibarés taldearen kontra. Bukatzeko, Leitzako Ardiskilen jokatuko du Etxarri Aranatzek, 18:00etan, Aurreraren kontra.

Gainontzeko mailak

Preferente mailako taldeaz gain, Altsasuk beste talde bat izango du Erregional mailako laugarren multzoan. Datorren asteburuan ekingo diote denboraldiari, Leunberriko Beti Kozkor B taldearen kontra. Jubenilei dagokienez, joan zen denboraldian Jubenil Liga Nazionalari eutsi zion Altsasuk, eta aurten ere bertan jarraituko du. Larunbatean hasiko dute denboraldia, Tafallan, Peña Sporten kontra. Bestalde, Jubenilen Bigarren mailan lehiatuko da Altsasuko beste jubenil taldea eta Lagun Arteakoa. Emakumezkoetan, Altsasuk aurten mustuko den Emakumezkoen Preferente mailan jokatuko du. Eta honi guztiari kadeteetan, infantiletan, kimuetan eta bestelako kategorietan lehiatuko diren talde sakandarrek gehitu behar zaizkio.



Josu Igoa eta Antton Apezetxea, Donostiako Antiguako Torneoko txapelarekin. UTZITAKOA

Josu Igoa pilotariaren uda bikaina

PILOTA Oberena klubean jokatzen duen pilotari etxarriarrak afizionatuen mailako udako bi torneo garrantzitsu irabazi ditu: Zumaiako Dinastia Etxabe eta Donostiako Antiguako Txapelketa

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Josu Igoa Lopez de Agileta pilotari etxarriarra afizionatuen mailako perletako bat da. Oberena klubean jokatzen duen sakandarrak uda bikaina ondu du, egutegiko izen handiko bi torneo irabaziz: Zumaiako Dinastia Etxabe torneo eta Donostiako Antiguako Txapelketa.

Abuztuaren erdialdean jokatutako Zumaiako Dinastia Etxabe Torneoko 23 urtez azpiko mailan Josu Igoak Iñigo Erlerekin (Lapke) osatu zuen bikotea. Finalean aurkari gogorrak zituzten: Unai Mata bere taldekidea (Oberena) eta Aimar Ibarloza (Markina). Beroketa ariketetan arazoa izan zuen Matak, eta ezin izan zuen %100ean aritu, baina zuen guztia eman zuen eta partida ederra eskaini zuten lau pilotariek. Igoak eta Erlek, hain zuzen ere Altsasuko Otadiko Kristo Deuna Torneoko finalistetako bat denak, 22 eta 14 gailenduta, Zumaiako torneo ezaguna irabazi zuten.

Zumaiakoa gutxi ez, eta Donostiako Antiguako Txapelketa finalerako sailkatzea ere lortu zuen Josu Igoak. Kasu honetan, Antton Apezetxearekin (Umore Ona) osatu zuen bikotea. Irailaren 3an, larunbatean jokatu zen finalean, bikoteak Aingeru De la Fuente (Buruzgain) eta Josu Irurita (Oberena) izan zituen aurkari. Igoak eta Apezetxeak nola jokatu oso argi zuten, eta hasieratik hartu zuten alde. Atzeko koadroetan Apezetxea nagusitu zen, eta aurrean Igoa fin ibili zen eta denetariko tanto ederrak josi eta gauzatu zituen. Horrela, Irurita bere eremutik atera zuten eta tantoak pilatzen hasi ziren, azkenean 22 eta 10 irabazi arte.

IGOAK ERLEREKIN IRABAZI DU ZUMAIKO SARIA ETA APEZETXEAREKIN DONOSTIAKOA

Altsasun bigarren finalerdia

Afizionatuen mailako 51. Otadiko Kristo Deuna Torneoko bigarren finalerdia larunbatean jokatuko da. Hiru partida jokatuko dira, eta elite mailakoan Egiguren eta Lizeaga gipuzkoarrek De la Fuente eta Azpiroz nafarrak izanen dituzte aurkari.

Emakumeak Irurtzunen

Emakumezkoen Ados Pilota klubak antolatutako II. Plazaz-Plaza Torneoa Sakanara heldu da. Igandean, 12:00etan, Etxegaraik eta Ruiz de Larramendik Zabaleta eta Orbegozo izango dituzte aurkari Bi Aizpe pilotalekuan.

Zabaleta play-offetan

Masters CaixaBank Torneon Ezkurdia eta Mariezkurrena zuzenean sailkatu dira finalerdietarako. Gainontzeko bikoak asteburuan jokatuko diren play-offetatik aterako dira. Jakak eta Zabaletak Irribarria eta Albisu dituzte aurkari gaur, ostirala, Zestean.

Maidar Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ Aritz Oiarbide Erdoziak txirrindularitza eta aizkora uztartzen ditu. Abuztuaren 14an Donamarian jokaturako Nafarroako III. Mailako Aizkora Txapelketan bigarren sailkatu zen eta Nafarroako II. Mailara igotzea lortu zuen. Bitartean, Sakana Group-Aralar junior taldeko txirrindulari gisa denboraldi bikaina ontzen ari da eta igandean Euskadiko Aizkolari Gazteen Txapelketako finala jokatu du. **Kirolari gisa zer zaren galdetzen dizutenean zer erantzuten duzu?**

Oraingo, txirrindularia. Une honetan etorkizun gehiago ikusten diot txirrindularitzari aizkorari baino. Bietan gustura aritzen naiz, baina lehenago txirrindularia naizela esaten dut, eta gero aizkolaria.

Eta gustukoena?

Biak antzeko. Bietan aritzen naiz gustura.

Zein kiroletan hasi zinen?

Aizkoran, aitonarekin. Beranduago hasi nintzen bizikletan, eta orain tartekatzen ditut.

Bigarren abizena Erdozia duzu, aizkolarien familiakoa zara. Juanito aitona eta Juanjo osaba aizkolariak dira, eta osaba ere txirrindularitzan ibili zen Aralar taldean. Bere bidea jarraitu duzu.

Bai, txirrindularitzan osabarengatik hasi nintzen. Nire lehen-gusua txirrindularitzan hasi zen, aitaren bidea eginez, eta gero ni hasi nintzen bizikletan. Aizkoran ere familiarengatik. Aizkoran aritzea zaila da, egurra eta materiala beharrezkoa delako. Aitona egongo ez balitz, oso zaila izango litzateke.

Aitona eta osaba Sakanako Aizkora Eskolako arduradunak dira, irakasleak. Zu ere eskolan trebatu al zara edo zure kabuz aritzen zara? Sakanako Aizkora Eskolan aritzen naiz, baina eskolaz aparte ere aritzen gara, familian.

Aitonak beti esaten du gaztetxo bat aizkoran aritzea ikusteak ematen diola poz handiena, eta ahal duen bitartean eskolan jarraituko duela, gazteak trebatzen. Bilobek aizkoran zaudetelako pozik egongo da, ezta?

Bai, oso pozik. Aizkoran jarraitzen dugula ikustearekin izugarri pozten da.

Aizkolari sena ikusten al dizute?

Hori ez dakit (kar, kar). Pixka bat ibiltzen naiz eta oraindik asko falta da goraino heltzeko, baina nahiko ongi ibiltzen garenez, jarraitzera animatzen gaituzte.

"Bizikletan eta aizkoran, bietan aritzen naiz gustura"

ARITZ OIARBIDE ERDOZIA TXIRRINDULARIA ETA AIZKOLARIA

TXIRRINDULARITZA / AIZKORA Nafarroako III. Mailako aizkora txapeldunordeak igandean Euskadiko Aizkolari Gazteen finala jokatu du, bezperan Lukin lasterketan aritu eta gero



Aritz Nafarroako III. Mailako kanporaketan, Iruñean, aitona alboan duela. UTZITAKOA

Aurten eman duzu saltoa. Nafarroako III. Mailako Txapelketan aritu zara, Amets Aristizabal urdiandarrarekin batera. Sanferminetako kanporaketan hirugarren sailkatu zinen, Endika Goiaren eta Patxi Igoaren atzetik. Amets bosgarren izan zen eta biak finalerako sailkatu zineten. Espero al zenuten?

Ez. Joan zen urtean ni txapelketan aritu nintzen, baina Ametsek ezin zuen, oraindik ez zituelako 16 urte bete. Ez nintzen finalerako sailkatu, eta alde askorengatik. Aurten, aldiz, ez nuen espero finalerako klasifikatzea ez horren ongi ibiltzea eta begira. **Agian presiorik gabe aritzeak mesede egin dizu?**

Baietz uste dut. 2021ean oso urduri joan nintzen, eta horri gehituta gaizki hasten bazara, ba gaizki bukatzen duzu. Eta hori gertatu zitzaidan. Aurten lasaia go joan naiz eta askoz ere hobeto aritu naiz.

Finala Donamarian jokatu zenuten zuk eta Ametsek. Lehia oso estua izan zenuen Ibai Telletxearekin eta, azkenean, 18 segundoren aldearekin bera izan zen txapelduna. Goia eta Igoa, kanporaketako onenak, zuen atzetik sailkatu ziren.

"EUSKADIKO AIZKOLARI GAZTEEN IGANDEKO FINALEAN LAN ONA EGIN NAHIKO NUKE"

Kanporaketan bi kana erdiko erdibitu behar genituen eta finalean bi kana erdiko eta bi 45 ontzako. Lan luzeagoa izatean, agian guk sasoi edo fondo handiago genuen eta gehiago eutsi genion. Dena den, ez nuen espero horren ongi aritzea, aurreko aste guztia oporretan egon ginelako eta ez nuelako ezer entrenatu, eta txirrindularitzarengatik ere ez niolako behar zuen arreta eskaini.

Txirrindulariak udan denboraldi bete beteaz zaudete. Nola moldatzen zinen aizkoran entrenatzeko?

Aizkoran entrenatzeko ez dut denbora askorik izan. Uztaile bukaeran Iruñeko Itzulian parte hartu nuen eta hura bukatuta egun batzuk hartu nituen aizkorarako. Pixka bat entrenatuta aurkeztu nintzen finalean, eta aurreko astean astebeteko oporrrak izan nituen. Eta sanferminetako kanporaketarako ez nuen gehiegi entrenatu, lasterketak nituelako eta momentuz bizikletari garrantzia gehiago ematen diodalako.

Beraz, Aizkora Eskolako neguko saioek bere uztza eman zuten.

Bai. Dena den astean behin aizkoran ibiltzen nintzen, ez entrenatzen, sasoi eta bereziki teknika ez galtzeko, gehienbat.

Zer jaso zenuen opari?

Trofeoa, aizkora baten antza zuena, eta diru saria. Familia guztia joan zen, eta aitona han ibili zen, laguntzen. Oso pozik zegoen.

Txirrindularitzan juniorretan lehen-dabiziko urtea duzu eta Sakana Group-Aralar taldean denboraldi bikaina egiten ari zarete.

Bai, oso ona. Mikel Uncilla eta Aimar Tadeo taldekideak nabarmentzen dira, garaipenak eta podiumak dituztelako, baina talde osoa, orokorrean, denboraldi ona egiten ari gara. Igandeko Beasaingo Proban, esaterako, Mikel Uncilla bigarren izan zen. Lasterketa garrantzitsua zen, denboraldi bukaerako garrantzitsua nire ustez, eta espainiar estatu osotik etorritako taldeak zeuden.

Iruñeko Itzulian aritu zinela aipatu duzu. Uncillak gutxigatik ez zuen juniorren itzuli garrantzitsu hori irabazi.

Bi segundogatik ez zuen irabazi. Itzuliko lau egunetan berari laguntzen ibili ginen, eta lehendabiziko postuan egon eta gero amorrer pixka bat ematen dizu horren gutxigatik ez irabaztea.



Aritz Oiarbide eta Amets Aristizabal, Nafarroako III. Mailakoan lehiatu eta gero. UTZITAKOA

Bi segundo. Baina, beno, bigarren postua ere oso ona da, eta egingako lanarekin pozik geratu ginen. **Uncillak eta Tadeok juniorren bigarren urtea dute, azkena, eta afizionatuetara salto egiteko duten maila erakutsi behar diren presioa.**

Juniorren bigarren urtean dudenendako urte zaila izaten da, hurrengo urterako talderik aurkituko ote duten, urduritasun hori izaten delako. Lehen urtekook aurten ez dugu presio hori, eta horrek ere denboraldia lasaia hartzen laguntzen du.

Nahiz eta talde-txirrindularien lana aitortu, liderren eta irabazleen izenak dira txirrindularitzan aipatzen direnak. Aizkora, aldiz, kirol indibiduala da.

Agian, kirol filosofia gisa aizkorarena da eramangarriagoa. Nahi duzun eta ahal duzun lana egiten duzu. Txirrindularitzan, gerta daiteke zuk egun oso ona izatea, baina taldekide bat aurrean ihes eginda badago, tropeletik ezin mugitzea. Taldea da oinarria. Agian aizkorakoa da kudeatzen errazagoa. Beste lana ere polita da, baina ez da berdina.

Txirrindularitza denboraldia berehala bukatuko da.

Bai, larunbatean Lukinen dugu lasterketa eta igandean Tafallan, baina ni ez naiz Tafallan ariko Euskadiko Aizkolari Gazteen Txapelketako finala jokatu dudalako Muruetan (Bizkaia), 13:30ean, elizaren aurrean.

Nafarroako III. mailako txapeldu-nordea zara, datorren urtean II. mailan lehiatuko zara eta orain Euskal Herriko saltoa egin nahi duzu. Gazteendako txapelketa bat da, Euskadiko Aizkolari Gazteen Txapelketa, Euskal Herriko Herri Kirol Federazioak antolatzen duena. Manex Agirre bizkaitarra eta Igoi Pikabea gipuzkoarra

izanen ditut arerio. Amets Aristizabalek Urrezko Aizkorako Gazteen Txapelketa jokatu zue-nean bertan lehiatu ziren. Nik ez ditut ezagutzen. Lehendabiziko aldia da halako txapelketaren batean ariko naizela. Txirrindularitza denboraldia bukatzeaz dagoenez, aizkorari tarte gehiago egingo diot.

Zer espero duzu?

Ez dakit. Igandean ikusiko da, baina ongi aritzea espero dut. Orain arteko txapelketetan egingakoa baino lan luzeagoa izango da: bi kanaerdiko eta lau 45 ontzako. Nafarroako III. Mailako finalean baina bi enbor gehiago. Nik lan luzeagoak ditut nahiago, bizikletarekin arituta sasoi edo iraupen gehiago dudalako, aizkoran ere beharrezkoa dena. Dena den, aurkariak nola dabilen, horrek ere zerikusia du. Gainontzeak azkarrago badoaz, zu ere saiatzen zara azkarrago aritzen, eta zure erritmotik ateraz gero, lehertu zaitezke.

Txirrindularitza, aizkora eta ikasketak. Guztia uztartzea zaila al da? Beno... Neguan okerrena izaten da bizikletarekin entrenatu ahal izatea. Goizean ikastera joan, laurak aldera itzuli eta gero entrenatzera atera... ez nuen denbora askorik. Aizkorarako ez dago arazorik, pabilioi barruan edozein ordutan aritu ahal zare-lako, baina bizikletarekin aritzea da arazo handiena. Aurten, arratsaldean ikasiko dudanez, niretako askoz hobe. Goizean bizikletarekin atera, gero ikasketetako lanak egin eta arratsaldean ikastera. Mantenu lanen ikasketak egiten ditut, Goierriin.

Zorte on igandean, ea Euskal Herriko saria ekartzen duzun!

Nahiko nuke, baina zaila izango dela uste dut.

Sakanako Bizikleta Eguna, atzerakontuan

TXIRRINDULARITZA Ziordia eta Irurtzun lotuko ditu XXVIII. Sakanako bizikleta festak, eta sakandarrak prestatzera eta lehenbailehen izena ematera animatu ditu Kirol Zerbitzuko orientatzaile Dani Echavarrik

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuko Dani Echavarri Manjon orientatzaileak data ongi apuntatu eta gordetzeko eskaria egin die sakandarrei. "Trailaren 25ean abiatuko da XXVIII. Sakanako Bizikleta Eguna, Sakana bizikletaz ezagutzeko, lagun berriak ezagutzeko eta goiz ederra pasatzeko aukera paregabea. Eguna horretarako prest egoteaz gain, bertan aritu nahi duten sakandarrei izena lehenbailehen emateko eskaera luzatzen diet" azaldu du.

Irailaren 19ra arte

Izan ere, partaideak Ziordiko abiapuntura eramateko eta eguna Irurtzunen bukatu eta gero euren etxetara bueltatzeko antolatu beharreko autobusak, kamioiak eta bestelakoak prestatzeko zenbat kidek parte hartuko duten jakitea ezinbestekoa da. Izena ematea Mank-eko Kirol Zerbitzuan egin beharko da, irailaren 19ra arte.



Adin guztietako sakandarrek hartzen dute parte Sakanako Bizikleta Egunean.

Aurten Ziorditik abiatuko da Sakanako Bizikleta Eguna, 9:00etan, eta Lakuntzan atsedenaldia egin eta gero, Irurtzunen despedituko da. 10 urtetik gorako pertsonak eman dezakete izena, eta txikiagoek gurasoekin

joan beharko dute. Harrera oso beroa izaten du. Joan zen urtean 360 pertsonak hartu zuten parte. Burunda, Aralar eta Barranka Txirrindularitza Taldeek, eta bestelako babesleek laguntzen dute antolaketan.



UTZITAKOA

25 urte, eta gehiago izan daitezela

ARETO FUTBOLA Gaur, ostirala, hasiko da Lehen Mailako Areta Futboleko 2022/2023 denboraldia. Osasuna Magna Xotak Antequera du aurkari, 19:30ean, Malagan. Talde berdeak asteartean egin zuten denboraldiaren aurkezpena, eta aurtengo urtea

"oso berezia" dela nabarmendu zuen Imanol Arregik, talde irurtzundarra lehen mailara igo zela 25 urte bete direlako. "Denboraldi gogorra izango da, baina guztia emango dugu jendeak disfrutatu eta pabilioitik irribarretsu ateratzeko" zin egin zuen.

93. Altsasu Proba, azken unera arte kolokan

TXIRRINDULARITZA Lasterketa irailaren 15ean, ostegun goizean jokatuko denez, boluntarioak lortu ahal izateko arazo larriak izan ditu Altsasu Kirol Elkarteak. Herrian antolatzen diren ekitaldiei duten balioa eman eta antolakuntzan laguntzeko deia egin dute

Maider Betelu Ganboa ALTSASU

Aurten 93 urte beteko ditu afizionatuen 23 urtez azpiko eta eliteen mailako Altsasu Txirrindularitza Probak. Altsasu Kirol Elkarteak antolatzen du eta espainiar estatuko lasterketarik zaharrena da, Espainiako Vuelta bera baino zaharragoa. Gaur egun Sakanan antolatzen den afizionatuen mailako lasterketa bakarra da. Lasterketak 90 urte bete zituenean udalak aitortza egin nahi izan zuen, eta urte horretako Altsasuko festetako suziria, 2019 urtekoa, lasterketaren antolakuntzan bere garaian ibilitako Eliseo Gorospe Aramendik, Miguel Angel Montesinos Zornozak –joan zen urtean zendu zen– eta gaur egun Altsasu Kirol Elkarteako txirrindularitza ataleko arduradun Felix Mazkiaran Yagüezek jaurti zuten. "Ohore handia" izan zen hirurendako.

Lan eguna

Bada, aurten 93. Altsasu Txirrindularitza Proba oso gutxigatik atera da aurrera. Lasterketa beti Altsasuko festetan jokatzeko da, irailaren 15arekin, goizez, eta aurten osteguna denez ohi baino askoz ere arazo gehiago izan ditu Altsasu Kirol Elkarteak proba antolatzeko, boluntario falta izan



Mazkiaran, Montesinos eta Gorospe, probaren 90. edizioko kartelarekin. ARTXIBOA

baitute. "Proba antolatu ahal izateko gutxienez 70 boluntario behar izaten dira: bidegurutzeak ixteko eta markatzeko boluntarioak, epaileak eta komisarioak eramaten dituzten auto gidariak, lasterketan laguntzen duten motorzaleak, lasterketa ixten duen ibilgailua eta beste. Altsasutik kanpo lan egiten dutenendako osteguna lan eguna da, beste batzuek ezin zuten eta jendea ezin lotu ibili gara. Azken bi asteak ahazteko modukoak izan dira" azaldu du Felix Mazkiaran arduradunak.

Errelebo falta

Proba aste egunean izateak eragin handia du, baina azpian faktore oso garrantzitsua dago: ez dago erreleborik. "Urte asko daramatzat Altsasu Kirol Elkarteak antolatzen dituen afizionatuen Altsasu Proba eta juniorren Erramu Lasterketa antolatzen, txirrindularitza izugarri gustuko dudalako. Lana gustura egiten dut, baina atzetik ez dator erreleborik. Ez zait inor gerturatu denborarekin lasterketaren ardua hartu nahiko lukeela esatera. Gainontzeko boluntario

gehienek ere urte asko daramatzate. Arazo larria da" dio.

Laguntza

Arazoaren aurrean, Altsasu Proba arriskuan zegoela eta boluntarioak behar zirela zabaldu zuen Altsasu Kirol Elkarteak sare sozialetan eta klubeko futbol eta pilota ataletan, eta azkenean, kostata, boluntario gehienak lortu dituzte. "Proba bertan behera uztea ere pasa zitzaigun burutik. Sekulako pena litzateke, gurea estatuko lasterketarik beteranoena baita, baina azken finean txirrindularien segurtasuna da jokoan dagoena; bidegurutze bat ez baduzu ongi markatzen, istripuren bat gerta daitekeelako. Argi eta garbi. Zorionez, azkenean kolaboratzaileak lortu ditugu eta elkartetik euren prestutasuna eskertu nahi dugu, bihotzez" eskertu du Mazkiaranek. Halaber, herriean antolatzen diren ekitaldi guztietan laguntza ematera animatu ditu altsasuarrrak. "Herriean denetariko ekitaldiak egotea nahi badugu, ekitaldi horiei duten balioa aitortu eta euren antolakuntzan lagundu behar dugu. Bestela, galtzen joango dira eta gero pena hori izango dugu" aitortu du.

Data aldaketa eskaria

Aurten gertatutakoari konponbidea emateko, datorren urteari begira lasterketa festetako asteburura lekualdatzea dute mahai gainean, "larunbatean edo igandean eginez gero boluntarioak lortzea errazago litzatekeelako. Euskadiko eta Nafarroako Txirrindularitza Federazioekin bilduko gara, data aldaketa egitea posiblea den ala ez ikusteko, data libre gutxi egoten direlako". Ezinezkoa bada, beste erabaki batzuk hartu beharko dira.

110 txirrindulari, ikusmin handia

Lasterketari dagokionez, 93. Altsasu Proban 110 txirrindulari inguru lehiatuko dira. "Laboral Kutxako Iker Mintegi altsasuarrrak eta Ailetz Lasa ziordiarrrak bere partehartzea ziurtatu dute momentuz. Laboral Kutxak, Rural Kutxak eta Lizartek euren talde onenak ekarriko dituzte, eta baita gainontzeko taldeek ere" dio Mazkiaranek. Altsasuko lasterketa ederra da, 140 km-koa, Altamira sei aldiz gaudituko duena, Amezitia auzora bitan iritsiko dena eta Sorozarretara ere helduko dena, San Pedroko bidetik sarritan pasatzearekin batera. Ostegunean, 10:00etan abiatuko da Altsasu Kirol Elkarteako egoitzaren paretik, eta Altsasuko udaletxe parean despedituko da, 13:30ak aldera. Joan zen urtean Lizarteko Raul Rota izan zen txapeladuna.

Altsasuko Proba, estatuko beteranoena izateaz gain, Euskaldun Txapelketarako baliagarria da. Ekainaren 18ra arteko txapelketa Xabier Berasategik (Laboral Kutxa) irabazi zuen, eta ordutik denboraldi bukaera arteko txapelketan Etxarri Aranatzeko bizi den Mulu Kinfe Hailemichael etiopiarra (Rural Kutxa-Seguros RGA) doa buruan. "Ez dakit Mulu arituko den, Euskaldun Txapelketa nahiko bideratua duelako, baina jakina da 1992 urtetik etxeko taldeak, Rural Kutxak, ez duela Altsasu Proba irabazi, eta gogo handia omen dute. Ikusiko da" dio, irribarrez.

"ERRELEBO FALTA DAGO, ETA EKITALDIK AURRERA ATERATZEA KOSTA EGITEN DA" FELIX MAZKIARAN

Altsasuko Mendigoizaleak eta Josefina Arregikoak, elkarrekin

MENDIA Igandean mendi irteera egin zuten Pirinioetan, Linzatic Txamantxoia

Maider Betelu Ganboa SAKANA

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak mendi irteera berezia egin zuen igandean, Pirinioetara, Josefina Arregi Klinikako zenbait langilerekin eta Klinikako Lagunen Elkartearen zenbait kiderekin.

"Klinikako kudeatzaile Angel Gardachalen deia jaso genuen. Langileendako mendi irteeraren bat antolatzeko asmoa zuten, eta martxa antolatzeko laguntza eskatu zigun. Animatu, eta guztia antolatu genuen" azaldu du Al-

tsasuko Mendigoizaleakeko Jesus Guineak.

Guztira, 30 pertsona inguru bildu ziren. Linzako aterpetik Txamantxoia (1.954 m) igo zuten, "Pirinioetan igotzeko mendirik errazena". Itzuleran, Esako urtegian gelditu ziren. "Penagarri dago, ia hutsik, eta ondoren Leire monasterioa bisitatu genuen. Egun zoragarria izan zen, eta herrialde ezberdinetako jendea ezagutu genuen, Hego Amerikakoa tartean. Oso gustura egon ginen" gaineratu du.



Linzako aterpetik Txamantxoia igo zen taldea. ALTSASUKO MENDIGOIZALEAK



Ezkerretik eskuinera, Haizea Urrea, Lucia de la Pisa, Enara Urrea eta Andrea Cuevas. UTZITAKOIA

"Eszenatokian errespetua sentitzen dut; sekulakoa da"

ENARA URRA ALBIZU MUSIKARIA

Musikaren "nomada" bezala definitzen du bere burua. Bi lagunekin kontzertua eskaini zuen Pikuxarren, emanaldi askoren lehenengoa.

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN

Pikuxarren udan zehar kultur emanaldiak egin dituzte, eta haien artean Enara irurtzundarrak eta lagunak deitutako kontzertua izan zen. Enara Urrea Albizu musikariak esperientzia handia du eszenatokien gainean, baina lehenengo aldiz taberna batean jotzen zuela. Musikaren "nomada" dela esan du. Pikuxarren Lucia de la Pisa abeslariarekin, Andrea Cuevas gitarrista irurtzundarrarekin eta, zenbait abestitan, Haizea Urrea ahizparekin aritu zen.

Nola hasi zinen musikaren munduan?

Bakarlari baino nomada bezala ibili naizela esan daiteke. Talde batetik bestera ibili naiz, hamai-ka gauzatan sartuta. Gehienbat herriko gazte asanbladatik esan digutenean ekitaldiren batean

"BERTSIOAK EGITEN DITUGU, ETA ORAIN GURE ABESTIAK PRESTATU NAHI DITUGU"

parte hartzeko, lagun bat bilatzen nuen eta kontzertua ematen genuen. Baina taldez aldatu dut. Orain, bi musikari hauekin hitz egin dugu talde finko bat edo zerbait egiteko. Kontzertu hau prestatu dugunez, mugitzen saiatu nahi dugu hirurok batera. **Zuen abestiak jotzen dituzue edo bertsioak?**

Momentuz, bertsioak. Konposatzea gustatzen zait, baina oraindik ez ditut egindako abestiak inorentzat jo. Luciarekin hitz egiten egon nintzen eta abestiren

bat konposatzera eta gure abesti propioak jotzeko prest gaude. Baina oraindik ez gara hasi. Atera zitzaigun kontzertu hau eta prestatzeko entseguak egiten zentratu gara.

Zein abesti jotzen dituzue?

Saiatu ginen euskaraz izatea, kontzertua Pikuxar euskal txokoan zelako. Baina Luciak ez daki euskaraz, eta sartu genituen gaztelaniazko abestiak ere. Baina ikasi zituen euskarazko letra pila bat, eta ez zen nabaritzen euskaraz ez zekienik. Beste kontzertu batzuk egin ditugunean, abesti oinarrikoetara joaten gara; euskal musikaren mitikoenak: *Lau teilatu, Ilargia...* Kontzertu honetarako saiatu ginen akustikoan ez dauden abestiak hartzen, kanta hauen benetako bertsioa egiteko. Ez abesti bat kalkatu, baizik eta guk abesti horietatik zer atera genezakeen, gure ukitua eman. Azkenean, ez genuen ez gitarra elektrikorik ez bateriarik. Bateriaren kontua zaila da abesti bati erritmoa ematea bateriarik gabe zaila delako, eta orduan gitarraren bidez nola egin genezakeen begiratu genuen. Joko horretan sartu ginen. Lehenengo aldia zen taberna batean jotzen genuena. Gaztetxe batean jotzen dugunean, badakigu zein den publikoa, eta badakizu gazte horien aurrean zein erreperitorio jo eta zein abesti bilatu. Baina taberna batean publikoa irekia da, eta ez dakizu zer nolako jendea joan daitekeen ikustera. Beraz, gustu guztietako erreperitorioa egiten saiatu ginen. Esaterako, Sabina jo genuen. Ni kontzertu batera joaten banaiz eta ezagutzen dudana abesti bat jotzen badute, gusturago sentitzen naiz.

Zer moduzko esperientzia izan zen?

Arraroa izan zen. Gure herria izanda mundu guztia ezagutzen genuen. Beste aldietan jo dugunean arinago sentitu garela uste dut. Abestien artean hitz egiten dugu eta horrelako gauzak, baina kontzertu honetan kostatu zitzaigun pixka bat jakitea nondik hasi. Herriko festetan, eszenatokietan eta abarretan jo izan dut, baina ez dut inoiz horrelako akustiko bat egin. Gainera, taberna batean jotzen duzunean

"UDA OSOA KONTZERTUA PRESTATZEN ARITU GARA; EMANALDIA MUGITU NAHI DUGU"

entsatzen duzu jendea zerbait hartzen ariko dela, eta musika atzetik dago. Baina iritsi ginenean aulkiak jarri zituzten gu eserita ikusteko. Aulkiak mugitu genituen eta mahaiekin jarri. Azkenean, jende asko joan zen eta oso gustura egon ginen.

Taldearekin jarraituko duzue?

Andrearekin zerbait proposatu digutenean aritu izan gara. Herrikoa da eta betidanik lagunak gara, eta oso erraza da berarekin lan egitea. Abeslaria gehiago aldatu dut. Nik nahiago dut beste abeslari batekin aritzea, kontzertu osoa nik bakarrik abesten badut aspergarriagoa izango dela pentsatzen dudalako. Bi ahots daudenean indar gehiago dauka akustikoak. Elektrotzaranga batean hasi nintzen eta hiru kidek komentatu zuten akustikoak egiteko deitzen zietela eta ea nahi nuen parte hartu. Egonean deitzen zen. Ez zigun denbora asko eman pandemiak harrapatu gintuelako, eta dena pikutara joan zen; elektrotzaranga, akustikoa... Nomada bat bezala ibili naiz. Orain Luciarekin berriro elkarrekin naizela kontzertu hau prestatzeko, biak Iruñera joango garenez, eta biek karrera musikara bideratu dugunez, horrelako emanaldiak ematen jarraitzea pentsatu dugu. Irailean Larrazpin joko dugu eta beste kontzerturen bat ere aurreikusten dugu. Urte asko pasa ditugu musika ikasten, eta pena bat da sartu dituzun ordu pila horiek atzean uztea. Aurrera egiteko modu bat da. Behintzat uda osoa entseatzeko eman ondoren, gutxienez pixka bat mugitzea.

Profesionalki trebatzen jarraituko duzue, beraz?

Lucia eta biok bai. Andreak ez. Ea noraino iristen den hori ere. Lucia goi mailakoan sartzen bada, atea irekitzen ditu, baina ez da batere erraza. Oso zaila da, eta betiere zerbait paraleloan ikasi behar duzu. Baina gutxinaka.

Zer sentitzen duzu oholtzaren gainean zaudenean?

Errespetu handia. Azken honetan, kontzertua hasi eta erdia iritsi arte ez nintzen konturatzen benetan ari ginela hainbeste jendearen aurrean jotzen. Sekulakoa da. Musika ongi egiten duen gauzarik hobereana dela uste dut. Bakoitzak daukana erakustea, jendeari une on bat eskaintzea... Gure denborarekin zerbait ona egin dugunaren seinale.



BAZTERRETIK

IRATI PELLEJERO MARIN

Serena Williams, tenis pista modako pasarela bihurtu eta diseinatzailea den tenislaria

Bere estilismoekin, historiako kirolaririk eraginkorrenak aurreiritziei aurre egin zien, bere indibidualtasuna eta janzkera berezia defendatu zituen eta bere marka sortu zuen.

Begi guztiak Serena Williamsengan jarrita zeuden 2022ko abuztuaren 29an. Ez zen gutxiagorako, urtebetez pistetatik kanpo egon ondoren, joan den ekainean, tenislari estatubatuarra –irailaren 26an 41 urte beteko ditu– Wimbledoneko pistetara itzuli zen. Historian eragin handiena izan duen kirolaria da, eta Grand Slameko 23 banakako titulu eta binakako beste 23 eskuratu ditu, baita banakako 73 titulu eta beste asko ere, horien artean lau urre olimpiko.

Gainera, modaren botere eraldatzaile sozialaren, komunikazio eta salaketa tresna gisa duen funtzioaren eta negozio aberats gisa duen balioaren defendatzaile sutsua da.

Serena, gainera, MET Galako zenbait zeremoniatan izan da, eta beti estilismo zirraragarriekin; horregatik, moda kronikarien eta Metropolitaneko eskaileretan pilatzen diren argazkilarien gustukoenetako bat da beti.

1999an, 18 urte bete berritan, bere lehen txapelketa handia irabazi zuen. Urte berean, Serena Floridako moda diseinuko eskola batean matrikulatu zen; gaur egun bere kirol arropa eta kaleko



arropa linea du: 2019an, New Yorkeko Modaren Astearen, S by Serena Williams linea aurkeztu zuen.

Bere jokoari, gorputzari eta janzkerari buruzko azterketa publiko gupidagabera ohitua, moda erabili du bere neurria, generoa eta arraza berresteko.

Mundu osoa txundituta utziz, Nike-ren diseinatzaileak diseinatzera behartu zituen, haien erosotasuna eta jokoa kontuan hartu gabe, baita beste tenislari batzuek eraman nahi ez zituzten ehunak erabiltzera ere: "Ondo erakutsi nahi dut pistan. Ez dut eroso egon behar". Eta horrela, handik denbora batera, kanabera altuko teniseko zapatilak eraman zituen lehen tenislaria izan zen.

Zer egingen du orain Serenak pistetatik kanpo? Modarekin lotuta jarraituko du?

Udako argazki lehiaketaren irabazleak



Epaimahaiaren saria. Antzuolako Ibarre Landetxean 2 gau bi lagunentzat: Amaia Iparragirre (MAREA).



Komunitatearen saria. Errigora kutxa bat: Amaia Abucyde Aylagas (PRAIA ESTEIRO).



Parte hartzaileen artean zozketa. Halcon Viajesen eskutik 50 eurotako opari txartela: Juan Carlos Irigoyen (ATA HARANA).

Gurekin harremanetan jartzeko

618 882 675



GUAIXE





Goxo Txaranga kideak. UTZITAKOA

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

"Kontserbatorioko ikasleak gara, eta gure artean komentatzen genuen ea zergatik dauden hainbeste mutil txarangen edota ez dagoen ia neskarik. Horrela sortu zen nesken txaranga bat aurrera eramatearen ideia". Alaiz Barrena Prieto Goxo Txaranga sortzailetako bat da, Sandra Fernandez tronpetistarekin batera. Maiatzaren 15ean Whatsapp talde bat sortu zuten eta bertan txarangen mundua gustatzen zitzaien jendea sartzen hasi zen, eta ideari forma ematen hasi ziren. "Ekainaren 20an, gutxi gorabehera, entseatzeko hasi ginen". Taldea pixkanaka moldatzen joan da, eta orain hamaika musikaririk osatzen dute txaranga, tartean altsasuar bat: Maddalen Oiarbide Unamuno bombardinojolea. Irailaren 16an, ostirala, 22:00etatik aurrera, Altsasuko festetan, kalejira egingen dute: "Oso urduri nago. Familia egongo da, herrian txaranga jotzen dudala badakite... Pozik nago herrian jotzeagatik".

Goxo txaranga ez da aitzindaria, duela zenbait urte ba omen zegoelako emakumezkoen txaranga bat. Baina, gaur egun, bakarrenetarikoa da. Neskak direla eta haiek ere txaranga batean "primeran" entzun dezaketela aldarrikatu nahi zuten. "Egia esan, ez dakigu oso ongi zergatik dauden hain emakume gutxi txarangen. Azkenean, txaranga bat sortzen duzunean ez dago sartzeko probarik ez

Kaleak girotzeko prest daude

Bi neskek sortu zuten Goxo txaranga ekainean, eta ordutik gelditu gabe daude. Hamaika musikari aritzen dira, tartean altsasuar bat. Tradizionalki mutilena izan den mundu batean haien tokia aldarrikatzeko sortu da

ezer; kontaktuen bidez egiten duzu eta ezagutzen duzun jendea abisatzen duzu. Orduan, mutilek lagunei deitzen diete eta, azkenean, mutilak biltzen dira". Musikariak gaineratu duenez, badago "sinesmen" bat, agian neskek ez dutela indarrarekin joko uste dutena. "Entzun izan dugu: neskak izateko oso ongi entzuten da".

"Nahi gabe" egindako komentarioak diren arren, "lekuz kanpo" daudela esan du Barrenak. Gainera, horrelako iruzkinak gutxienekoak izan dira. "Orokorrean oso harrera ona izan

"OSO GUREA DEN KANTA BAT RIGOBERTA BANDINIREN 'AY, MAMA' DA"

dugu. Egon garen toki guztietan oso ongi hartu gaituzte, oso gustura egon gara. Ez digute komentario txarrik egin". Aurretik beste txaranga batzuetan egondakoa da Barrena, baita txaranga beste kide bat ere, baina Goxo txaranga "bereziki" gustura dagoela aitortu du. "Ez dakit sortzen den giroagatik den edo gure arteko afinitateagatik, baina oso gustura jotzen dut". Oiarbidek ere oso gustura dagoela esan du: "Guztiak oso ongi moldatzen gara. Hitz egiterakoan elkar ulertzen dugu eta desberdina da. Gustura gaude, harreman bikaina dugu".

Hamaikakoa

Gazteenak 15 urte ditu eta helduenak 22. Oso gazteak dira. Normalean hamaika musikari ateratzen dira: hiru perkusio, hiru tronpeta, bi tronboi, bi sa-

xofoi eta bombardino bat. "Normalean bombardino ez da txarangen egoten, helikioia edo tuba egoten dira, baina ez dute Nafarroan tresna hori jotzen duten neskarik topatu. Taldean hamahiru pertsona daude, batzuetan aldaketak egin behar dituztelako, eta errefortzuko jendeak ere jo izan du.

Ekainean hasi ziren, eta dagoeneko hamaika emanaldi eman dituzte. "Uztailaren 2an izan genuen lehenengo tokata, eta hortik gelditu gabe". Kontratazaileen arabera, publikoa denetarikoa da edo emakumezkoa

GOXO TXARANGAK IRAILAREN 16AN, OSTIRALA, ALTSASUKO FESTETAN KALEJIRA EGINEN DU

bakarrik: "Adibidez, kintoetarako kontratatzen bagaituzte, kintoetan denetarik dago. Baina Feministok festetarako kontratu gintuzten, eta hor publikoa emakumezkoa zen gehienbat".

Oraindik beste txarangenatetik desberdintzeko edo nabarmentzeko goiz dela azaldu du Barrenak, baina pixkanaka haien bidea egiten ari dira. "Adibidez, abesti batzuetan panderoa ateratzen dugu, eta txaranga batean ez da oso ohikoa panderoa jotzea". Errepertorioari dagokionez, beste txarangekin "oso antzekoa da": kalejirak, mugimenduan joateko abestiak, kunbiak, mexikarrak, Mi gran noche, La Polla, potpurriak Avici, Fito, El canto del loco... "Oso gurea den kanta bat Rigoberta Bandiniren *Ay, Mama da*, hori bai beti jotzen dugula". Oiarbidek esan duenez, jotzen duten musika "oso gustuko" du: "Oso kanta ezagunak direlako. Kanta gehiago sartuko nituzke, baina oso ongi dago".

Txaranga

Kontserbatorioko ikasturte amaieran musikariek erakustaldi publiko bat egiten dute. "Kanpoko jendea gu ikustera etorri zen", azaldu du Oiarbidek. "Audizioa bukatu zenean bi neska etorri zitzaizkidan nirekin hitz egitera, eta esan zidaten neska txaranga bat sortu zutela eta ea gustatuko litzaidakeen txaranga horretan sartzea". Pentsatu gabe baietz esan zuen, "eta, noski, gero ondorioak pentsatu nituen". Izan ere, Oiarbidek ez du gidatzeko baimenik eta entseguetara eta emanaldietara norbaitek eraman behar du, "baina oso gustura nago. Oraindik ez dut asko sinisten".

Oiarbidek Haize Berriak bandan eta fanfarrean jotzen du, baina txaranga batean aritzen den lehenengo aldia da. Jotzera ohituta dagoen arren, "hau oso desberdina" dela esan du. "Gogo handia dut Altsasuko festetan jotzeko". Proiektuan %100 sartuta dagoela esan du. "Emanaldi gehienetan egon naiz".

"Oso ongi funtzionatzen ari denez gure helburua urte osoan zehar jotzen jarraitzea da, deitzen gaituzten tokietara joatea eta joan ikusten". Helburu nagusia txaranga aurrera egitea dela esan du Barrenak, "gurekin ez bada ere, sartzen direnekin".

"Armarriak zurarekin lantzeko politikak dira"

Altsasu abizenaren eta Altsasu herriaren armarriak batu ditu Jesus Mari Olmos Amillano zurginak eskultura batean. Orain, Vitruvio gizona lantzen ari da. Zaletasun bat da, eta lortia kultur gunean erakusketa prestatzen ari da.

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Nola hasi zinen zura lantzen?

Haurra nintzela hasi nintzen. Benancio osabarekin aritzen nintzen, eta gero etxean lan egiten jarraitu nuen ere. Hamalau urterekin zurgin lanak egiten hasi nintzen, eta lanetik ateratzen nintzenean tailerrean jarraitzen nuen zura lantzen. Zurgintzarekin hasi nintzen lanean, eta bizitza osoa horretan aritu naiz.

2 Nola lantzen duzu?

Material guztia prestatzen dut. Nik egiten dudana da egur guztiak kolarekin batu, eta gero horren gainean marrazten dut. Marraskia pixka bat asmatzen dut. Ez dut inondik kopiatzen. Altsasuko armarrian adibidez, burua eta armarrien inguruan dagoen apaingarria herrietako etxeetako armarrien nahasketa bat eginez osatu dut. Nire modura egiten dut. Marraskia egin ondoren, egurra



Jesús Mari Olmos Amillano Altsasu armarriekin.

higatzen joaten naiz. Orain Vitruvio gizona egiten ari naiz. Gauzak egiten joaten naiz, baina egiteko gauza berriak sortzen zaizkit, eta alde batera uzten ditut.

3 Zer egur mota erabiltzen duzu?

Dena haritza da. Haritza gustatzen zait gogorra delako eta bizitza osorako delako. Badira beste egur batzuk sitsa sartzen ez dena. San Pedroko haritzaren adar bat ere ekarri nuen. Udalak esan zidan ea interesatzen zitzaidan, eta hartzera joan nintzen. Garbitu dut eta sitsaren kontrako erremedio naturala da; honi ez zaio sitsa sartuko. Orain prestatzen ari naiz hemendik eskultura bat ateratzeko.

4 Eta zer egingo duzu?

Garai bateko kutxa zaharren pieza bat. Herriaren oroitzapen bat ere izateko.

5 Altsasuren bi armarriak batu dituzu. Nola sortu zitzaizun ideia?

Heraldika liburuak ditut, eta begiratzen ari nintzela Altsasu abizenaren armarria ikusi nuen. Orduan, pentsatu nuen: "Zergatik ez dut egiten abizenaren eta herriaren armarria?". Hemen tailerrean lantzen ari nintzela, alkatea pasa zen eta ikustera sartzeko esan nion.

6 Nolako da?

Abizenaren armarrian gulari baten besoa agertzen da, Santiago bideko maskorrek bidea hemendik pasatzen omen zelako, txokolate katiluak eta bihotzak, eta erdian ardi bat bandera batekin.

7 Eta zer egiten duzu pieza hauekin?

Zaletasun bat da. Jubilatuta nintzen, eta orain gauza hauek erakusketak egiteko baliatzen ditut. Aurretik egin izan ditut enkarguak, baina orain niretako egiten dut. Lortia kultur gunean erakusketa bat prestatu nahi dut, baina horretarako Vitruvio gizona bukatu nahi dut. Beste pieza honek, kutxa zahar batekoa, 800 bat kilo pisatzen du. Desagertzen ari diren kutxa zaharrek eta etxe zaharren leihoak osatzen dute piezak. Erakusketa egiten badut eta jendea-ri zerbait gustatzen bazaio, prezio bat adostuko genuke eta aurrera. Baina saltzeko ez ditut gauza asko.

Azoketan ere parte hartu izan dut, baina piezek pisu handia dute, eta egun baterako gauza asko mugitu behar ditut.

8 Zenbat denbora eskatzen dizu horrelako pieza bat egiteko?

Armarria, esaterako, jarraian egingo banu hiru hilabetetan egingo izango nukeen, baina pixkanaka egiten joan naiz. Egun batean agian mendira noa eta ez dut lantzen. Azkenean, asko kargatzen zaitu. Vitruvio gizonarekin gertatu zait. Dagoeneko bederatzi bat hanka egin dizkiot. Orduan, utzi nuen eta orain berriz hartu dut. Armarriarekin hasi nintzen eta pandemian etxera eraman nuen. Bukatzea pentsatu nuen. Maitek, bikotekideak, esaten zidan isiltzeko, azken finean kolpeak ematen direlako lantzeko. Semeak ere lagundu zidan. Ezkaratzean jartzen nintzen eta hor ibiltzen nintzen lanean.

9 Zer tresna erabiltzen dituzu?

Maza, gubiak eta kodilloak deitzen direnak. Gubiak lauak izan daitezke, bihurguneekin...

10 Zertan inspiratzen zara?

Ez zait gustatzen armarri guztiak berdinak izatea. Herrietako etxeetakoak denak desberdinak dira. Armarriak begiratzen joaten naiz, eta horietatik joaten naiz inspiratzen. Aurreko astean Oñatin egon nintzen eta bertan dauden etxe zaharretako armarriak begiratzen ditut, eta etxe batean bi izkintan armarriak zeuden. Oso apaindutakoak dira. Gauza horiek begiratzen ditut. Beste armarri bat egitea pentsatzen ari naiz, eta armaduraren buruak alde batera begiratu beharrean aurrera begiratzea nahi dut, eta armarritik aterako balitz bezala. Gipuzkoa aldean horrelakoak badira. Eta hori ez zaizkidala armarriak asko gustatzen. Egon zen armarrien boom bat, baina egia da denak antzekoak zirela eta denak ez dira benetakoak, guztiok ez baitugu armarririk. Baina lantzeko politikak dira apaingarri asko dituztelako.

11 Zer da zailena?

Ni kontu handiz ibiltzen naiz egurra ez irekitzeko. Hori begiratzen joaten naiz. Gero ere ezin da oso hezea egon, bestela irekitzen delako. Bestela lana geroz eta konplikatuagoa gehiago gustatzen zait.

ZURE NEGOZIO, PRODUKTU EDO EKITALDIAREN BERRI EMAN NAHI DUZU

Kuñak, elkarrizketak, audioak, irratsaioak, web banerrak, prentsarako euskarriak... prestatuko dizkizugu

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

gk
 DISEINUA ETA
 KOMUNIKAZIOA

619 821 436
 info@komunikazioa.eus
 www.komunikazioa.eus
 Foru plaza, 23-1. Altsasu